

BASERRITIK MUNDURA

ESPERIENTZIAREN
SISTEMATIZAZIOA

elikadura burujabetzarako
prestakuntza eta ikerketa

Beatriz Casado Baidés
(Koordinatzailea)



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



hegoa

INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL
INSTITUTU GHEGOA ETXEREN BARRUTIAKIN ERANTZUNERAN

BASERRITIK MUNDURA

ESPERIENTZIAREN
SISTEMATIZAZIOA

elikadura burujabetzarako
prestakuntza eta ikerketa

Beatriz Casado Baidés
(Koordinatzailea)

Argitalpen hau egiteko, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak "Baserritik Mundura! Euskal Herriko baserritar mugimenduaren artikulazioa eta formakuntza" proiekturako (2016) eman duen diru laguntza jaso da.



Baserritik Mundura esperientziaren sistematizazioa: elikadura burujabetzarako prestakuntza eta ikerketa

Egilea: Beatriz Casado Baidés (Koord.); **Koordinazio Politiko Pedagogikoa:** Mirene Begiristain, Yenifer García, Alazne Intxauspe, Alicia López de Munain, Berta Malvárez, Zesar Martínez, Estibaliz Redondo, Janaina Strunzak; **Ikastaroaren lehenengo edizioaren ikasleak, Piztu da Hazia!:** Garikoitz Aiesta, Ander Arandia, Jon Arrizabalaga, Julen Azkoaga, Maialen Chantre, Amaia Diaz de Monasterio, Marije Etxebarria, Sandra Fernández, Sergio Gallego, Iban González, Xabier Gutiérrez, Alex Hernandez, Arrate Iturbe, Amaia Iturri, Jean Rousseau Joseph, David Lopategi, Enrique López, Asier Oleaga, Andrea Rodríguez, Igone Saldias, Nekane Tomasena, Nerea Viana, Jokin Zabala y Maider Zubikarai; **Ikastaroaren bigarren edizioaren ikasleak, Besardakada:** Mikel Agirre, Julen Altzelai, Marta Bascones, Laura Barriuso, Nekane Beitia, Vanesa Calvo, Raquel García, Javier González, Ane Gorosabel, Ioritz Iparragirre, Iosu Litago, Nadia López, Arantzazu Martiarena, Raket Martin, Leire Milikua, Lur Moragues, Zuriñe Perales, M^a José Romero, Luka Saenz, Maddi Sarasola, Koldo Tellería y Maribi Ugarteburu.

www.hegoa.ehu.eus

hegoa@ehu.eus

UPV/EHU	UPV/EHU	UPV/EHU
Edificio Zubiria Etxea	Carlos Santamaría Zentroa	Arabako campuseko liburutegia
Lahendakari Agirre etorbidea 81	Elhuyar Plaza, 2	Nieves Cano, 33
48015 Bilbao	20018 Donostia-San Sebastián	01006 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 94 601 70 91	Tel.: 943 01 74 64	Tel.: 945 01 42 87
Faxa: 94 601 70 40		Faxa: 945 01 42 87

www.ehne.eus/index.php?lang=es

Murueta Kalea s/n,
48220 Abadiño (Bizkaia)
Tel.: 946 262 730
Faxa: 946 202 880

2019ko martxoan
Azalaren ilustrazioa: Koldo Tellería
Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.
Traducción: Iñigo Gallastegi
ISBN: 978-84-16257-44-7



Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Espainia
Lan honek Creative Commons lizentzia du. Baimenduta dago lan hau kopiazea, banatzea eta publikoki komunikatzea egilea aitortzen bada eta helburu komertzialekin erabiltzen ez bada. Ezin da lan hau aldatu, eraldatu edo lan honetatik beste bat eratorri. Lizentzia osoa: <https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.eu>

Aurkibidea

1. Aurkezpena	4
2. Nola eta zertarako egin da sistematizazio hau	5
3. Baserritik Mundura esperientziaren ereintza eta hazkuntza	10
3.1. Ereintza... prestakuntza proposamenaren eraikuntza eta diseinua (2012-2015)	10
3.2. Hazkuntza... edizio biak martxan jartzea eta garatzea (2016-2018)	15
3.3. Euskal unibertsitate eremuan berezko nortasun berezia duen prestakuntza esperientzia	17
4. Baserritik Mundura esperientziaren proposamen pedagogikoa	19
4.1. Printzipioen metodoa: prestakuntza prozesua asmatzeko eta eraikitzeko bestelako modu bat	20
4.2. Baserritik Mundura esperientziaren hezkuntza giroa sortzeko hiru gako metodologiko	22
4.3. Ikerketa-ekintza, txandaketa eta organizitatea: lurralde klabeen landutako hiru dimentsio pedagogiko	28
5. Egindako edizio bietan zehar identifikatutako ikaspenak eta gakoak	38
5.1. Proposamen pedagogikoari eta horrek duen herri hezkuntza ikuspegiari lotutako ikaspenak eta gakoak	38
5.2. Txandaketari lotutako ikaspenak eta gakoak	43
5.3. Ikasleen (LNen eta Lantaldeen) organizitateari lotutako ikaspenak eta gakoak	49
5.4. Dimentsio mistiko eta ludiko-kulturalari lotutako ikaspenak eta gakoak	52
5.5. Eduki teorikoei, irakasgaiei, jarduera irekiei eta irakasle taldeari lotutako ikaspenak eta gakoak	55
5.6. Ikuspegi feministaren zeharkakotasunari lotutako ikaspenak eta gakoak	58
5.7. Hizkuntza aniztasunari eta euskararen erabilerari lotutako ikaspenak eta gakoak	59
5.8. Prozesuaren bide-laguntza politiko pedagogikoari lotutako ikaspenak eta gakoak	61
Bibliografia	65

1. Aurkezpena

Baserritik Mundura¹ honako hauek elkarrekin antolatutako ikastaroa izan da: EHNE-Bizkaia (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna) nekazaritza sindikatua, Etxalde-Nekazaritza Iraunkorra mugimendua eta UPV/EHUko Hegoa Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua. Ikastaroak, bere bi edizioetan, elikadura burujabetzarako prestakuntza eta ikerketa eremuak sortu eta zabaldu nahi izan ditu euskal unibertsitatean.

Ekimen hau La Vía Campesinako (LVC) mugimenduek eta erakundeek biltzen duten herriko eta baserriko jakintza pedagogikoan errotzen da. Horiei esker, beste testuinguru batzuetan baserriar prestakuntzak daudela ikasi dugu, heziketa eredu inspiratzaileak erabiltzen dituztenak. Hala, esperientzia horiekin ikaspenak partekatzea eta trukatzeko funtsezkoa da eta, hortaz, sortzen ditugun esperientziak sistematizatzea beharrezko bihurtzen da. Premisa horietan oinarrituz, Baserritik Mundura esperientziak LVCren prestakuntza prozesuen ezaugarri den heziketa eredu euskal testuinguruan txertatu eta horretara egokitu du. Horretarako, bada, Brasilgo Lurrik Gabeko Landa Langileen Mugimenduaren (MST) Florestan Fernandes Eskola Nazionalaren (ENFF) esperientzia hartu du erreferentzia nagusitzat. Halaber, hasieratik izan dugu prozesu hori sistematizatzeko asmoa.

Baserritik Mundura esperientzia ausarta eta erronkaria izan da, gure imajinarioan dugun "unibertsitate ikastaroaren" kontzeptioarekin eta formatuarekin hautsi nahi izan duena. Izan ere, bestelako prestakuntza proposamen bat sortzen saiatu da. Ziur gaude honako hau gure garaiko erronka nagusietako bat dela: (gure burua) ezagutzeko eta (gure burua) prestatzeko, ikertzeko eta, errealitatea eraldatzeko saiakeretan, gure burua eraldatzeko modu berriak saiatzen ausartzea.

Beraz, sistematizazio honen bitartez bi edizioen ondoren amaitu den prozesu horren historia eta sortu dituen zenbait ikaspen partekatu nahi ditugu. Dokumentu honetan, hortaz, honako alderdi hauek azaltzen ditugu: ideia nola sortu zen; bi edizio horietan proposamen pedagogikoa nola bilakatu eta zehaztu zen, gure inguruan berritzailea izan den heziketa aukera bat sortuz; eta zeintzuk izan diren prozesuaren protagonistek identifikatutako ikaspen nagusiak.

Esperientzia baten sistematizazioa, berez, prozesu kolektibo bat da beti. Zein ardatz aztertuko dugun eta zer helbururekin erabakitzen bildutako informazioa antolatzeko eta sailkatzeko prozedura zehaztera eta prozedura hori burutzerara; eta azkenik, informazioa aztertzea, ikaspenak ateratzen eta biltzen lagunduko duen interpretazio kritiko bat lortzeko helburuz.

Gure kasuan, bada, sistematizazio prozesu hori pertsona batek koordinatu du, baina hori egiteko erabili diren lehen mailako iturriak guztion artean bildu ditugu; hau da, horretan Baserritik Mundura ikastaroko talde pedagogikoko kideek, Piztu da Hazia! lehenengo edizioko partaideek eta Besardakada bigarren edizioko kideek parte hartu dute². Esku artean duzun argitalpen honek, bada, bildutako informazioaren lehenengo azterketa bat ematen du. Azterketa hori sistematizazio prozesua koordinatu duen pertsonak berak egin du eta, horretarako, gaur egungo Koordinazio Politiko Pedagogikoko (KPP) zenbait kideren berrikuspena eta egiaztatpena izan du.

Azkenik, Baserritik Mundura posible egiteko ekarpena egin duten pertsona, kolektibo eta erakunde guztiei eskerrak eman nahi diegu. Esperientzia honetatik eratorritako ikaspenak etorkizunean inspirazio iturri izatea espero dugu.

1 Ikastaroaren izen osoa honako hau da: "Baserritik Mundura. Gure elikaduraren etorkizuna jokoan" "Del caserío al mundo: el futuro de nuestra alimentación en juego". Hala ere, dokumentuaren irakurketa errazteko helburuz "Baserritik Mundura" laburdura erabiliko dugu.

2 Dokumentu osoan zehar Piztu da Hazia! edo lehenengo edizioa, eta Besardakada edo bigarren edizioa erabiliko ditugu, inolako bereizketarik gabe.

2. Nola eta zertarako egin da sistematizazio hau

Zer da guretzat esperientzien sistematizazioa?

Esperientzien sistematizazioa modu desberdinetan uler daiteke. Guretzat, hori praktikatzen duten beste kolektibo batzuentzat bezalaxe, sistematizazioa parte hartzeko ikerketa sozialeko metodologia bat da, bizipenean oinarrituz ezagutza kolektiboa sortzen laguntzen duena. Horregatik, prozesu horretan, Oscar Jarak proposatzen duen esperientzien sistematizazio nozioa erreferentzia bezala erabiltzen dugu. Nozio hori Latinoamerikako eta Karibeko Herri Hezkuntza Batzordeak (CEAAL)³ eta Red Alforja⁴ sareak egindako lanetan eta eztabaidetan oinarritzen da.

Esperientzia baten edo batzuen interpretazio kritikoa da, horiek antolatuz eta berrituz horietan bizi izandako prozesuaren logika eta zentzua esplizitu egiten duena: izandako faktore desberdinak, horien arteko harremana edo zergatik egin zuten modu horretara. Esperientzien Sistematizazioak ezagutza eta ikaspen esanguratsuak sortzen ditu. Ezagutza eta ikaspen horiek, bada, bizi izandako esperientziez (jakintzez eta usteez) modu kritikoan jabetzea, ikaspenak ateratzea, eta esperientzia horiek ulertzea eta etorkizunerako hobetzea ahalbidetzen dute (Jara, 2014: 99).

Zertarako sistematizatu Baserritik Mundura?

Alde batetik, sistematizazio prozesua bera pedagogikoa izatea eta honako helburu hauek betetzeko balio izatea nahi genuen: ezagutza kolektiboa sustatzea; prozesuaren protagonistak izandako pertsona eta kolektiboen jakintzak balioestea eta bistaratzea; esperientzia aztertzea, ikuspegi eta begirada desberdinetatik ikaspenak, mugak eta erronkak identifikatuz; esperientziak modu kritikoan jabetzea, garatu bitartean hori hobetzearren eta konplexutasun handiagoz ulertzearen.

Bestalde, Baserritik Mundura ezagutzera eman nahi genuen; izan ere, hori esperimentazio pedagogiko eta antolatzaile berritzailea izan da gure testuinguruan, hainbat ahalegin batuz kolektiboki eraiki dena.

Zer partekatu nahi dugu sistematizazio honen bitartez?

Honako hauek dira dokumentu honek dituen hiru helburuak:

- * Esperientziaren erreskatatze historikoa: proposamena nola sortu zen eta nolako bilakaera izan duen.
- * Horren heziketa eredu eta metodologia pedagogikoaren ezaugarri nagusiak azaltzea.
- * Sistematizazio prozesu honetan prozesuaren protagonistek berek identifikatutako ikaspen nagusiak partekatzea.

3 Herri Hezkuntza mugimendu bat da. Hori sarean antolatzen da eta hezkuntza, gizartea, politika, kultura eta ekonomia eraldatzeko prozesuak laguntzen ditu Latinoamerikan eta Kariben. Ikus: <www.ceaal.org>.

4 Alforja Herri Hezkuntzaren Mesoamerikako Sareak heziketa politiko, herri komunikazio eta esperientzien sistematizazio prozesuak sustatzen ditu. Horren arabera, herri hezkuntza gizarte erakundeak eta mugimenduak sendotzeko tresna bat da. Ikus: <www.redalforja.net>.

Gure ustez, Baserritik Mundura etengabe eraikitzen ari izan den heziketa prozesua da. Prozesu hori, bada, berritzailea da eta bere diseinuan eta edizio bietan arrakasta eta gaitasun ugari erakutsi du, hala nola, ilusioa sortzeko, politizatzeke eta eraldatzeko ahalmen handia. Aitzitik, prozesu orok bezala, zailtasunak eta mugak ere izan ditu, funtzionatu ez duten gauzak, alegia. Horiek ere, baliagarriak izan dira, esperientzia bere osotasunean ulertzen laguntzen baitute, baita horren jarraipena oztopatu duten korapiloak ere. Izan ere, etorkizunean kontuan hartu eta beste modu batean egin beharreko hori argitzen lagundu dute.

Nola garatu dugu sistematizazio prozesua? Zein izan da sistematizazioaren ardatza?

Esperientzia sistematizatzeko ideia hasiera-hasierakoa da. Izan ere, heziketa proposamen horren metodologia pedagogikoa eta antolatzailea euskal testuingurura egokitzen ari ginen eta, ondorioz, urrats bakoitzean hori birpentsatu beharra zegoen.

Hori dela eta, hasieratik esperientziaren ebaluazioa eta sistematizazioa bera heziketaren dimentsio gisa txertatzea erabaki genuen. Horretarako, bada, ikastaroaren **prozesuaren ebaluazio planteamendu** bat pentsatu genuen. Horrek hiru ezaugarri hauek izan behar zituen: a) ikasleen banakako jarduera eta jarduera kolektiboa ebaluatzen laguntzea, baita horien ikerketa prozesuak ere; b) esperientziaren lehenengo edizioen sistematizazio prozesuan lagungarria izatea; c) ikastaroaren proposamenarekin berarekin koherentea izatea, partaide guztiek parte har zezaten lagunduz. Ondorioz, bakoitzak bere burua ebaluatzen du, ebaluatua da eta gainontzekoak ebaluatzen ditu, baita prozesua bera ere. Ebaluazio horren bitartez nork bere burua, kolektiboa eta prozesua aberasten du.



Lehen edizioko sistematizazio saioetako bi momentu. Iturria: Baserritik Mundura artxiboa.



Lehen edizioko sistematizazio saioetako bi momentu. Iturria: Baserritik Mundura artxiboa.

Beste alde batetik, **ikastaroaren metodologia pedagogikoa sistematizazio ardatz gisa** ezarri zen. Hau da, Baserritik Mundura esperientziaren bizipenari buruzko ezagutza kolektiboa sortzeko, heziketa eredu hori sostengatzen duen proposamen pedagogikoa, antolatzailea eta politikoa foku bezala hartzen da. Hala, hainbat jarduera, eremu eta momentu sortzen dira, protagonistak diren horien ikuspegitik (ikasleak, irakasleak eta KPPa) ardatz horren inguruko hausnarketak, balorazioak eta ikaspenak jasotzeko.

Hasierako helburu hori neurri handi batean lortu da. Nolabait, esperientziaren ebaluazio eta sistematizazio prozesuan protagonista gehienek hainbat modutan parte hartzea lortu da, horien balorazioak eta ikaspenak jasoz.



Bigarren edizioko sistematizazio saioak. Iturria: Baserritik Mundura artxiboa.

Zeintzuk izan dira erabilitako informazio iturriak?

Balorazioak eta ikaspenak erregistratzeko eta jasotzeko ahalegin pertsonal eta kolektiboei esker, prozesuan zehar dokumentu asko eta askotarikoak produzitu dira (idatzizkoak eta ikus-entzunezkoak). Horiek, bada, argitalpen honen oinarriko informazio iturriak izan dira.

Honako hauek dira erabili ditugun **lehen mailako informazio iturriak**:

- * Edizio bietan, etapa bakoitzaren ondoren ikasleek, irakasleek eta KPPak egindako ebaluzio indibidual eta kolektiboen erregistroak.
- * Edizio bakoitzean, aurrez aurreko azken topaketan egindako ebaluzio ariketa espezifikoaren erregistroa. Ariketa horien helburua, bada, ikasle talde bakoitzarekin metodologia ebaluatzea eta ikaspenak identifikatzea izan da.
- * Lehenengo edizioko ikasleei taldeka egindako elkarrizketak. Horietan ikasleek bizipen hori aztertzen eta horren inguruan hausnartzen dute.

- * Edizio bakoitzaren amaieran KPPak egindako ebaluazio eta sistematizazio saioretan izandako ariketen eta eztabaiden erregistroa.
- * Bigarren edizioan zehar, ikerketak laguntzeko taldeak egindako balorazioen eta eztabaiden erregistroa.

Bestalde, sistematizazio prozesua koordinatu duen pertsonak egindako doktore tesia⁵ **bigarren mailako iturri** bezala erabili da, horrek lotura baitu Baserritik Mundua prozesuarekin.

Hala ere, eskura izan dugun informazioa ugaria izan da eta hori aztertzeko, elkarrekin kontrastatzeko eta laburbiltzeko denbora, ordea, mugatua. Hori dela eta, aurkezpenean azaldu dugun bezala, argitalpen honek bildutako informazioaren lehenengo azterketa bat egiten du. Azterketa hori, sistematizazio prozesua koordinatu duen pertsonak egin du, gaur egungo KPPko zenbait pertsonarekin berrikusiz eta kontratatuz.

5 Tesiaren izenburua honako hau da: *Procesos de formación campesinos y disputa territorial para construir soberanía alimentaria. Análisis de experiencias impulsadas por organizaciones de La Vía Campesina en Brasil y País Vasco* (Casado, 2018). Ikerketa lan horren parte enpirikoan Baserritik Mundura ikastaroa diseinatzeko prozesua deskribatzen eta aztertzen da eta lehen edizioa sistematizatzen da, baita erreferentzia nagusitzat hartu diren ENFFren esperientziak ere.


3. Baserritik Mundura esperientziaren ereintza eta hazkuntza

2010-2012 urteetan Hegoa Institutuko Lankidetzak Kritikoak eta Gizarte Mugimenduak Ikerketa Taldeak eta EHNE-Bizkaia/La Via Campesinak lankidetzak dinamika bat abiatu zuten zenbait heziketa eta ikerketa prozesuren inguruan. Hala, 2012an, lankidetzak dinamika horri jarraipena emateko urratsak pentsatzeko momentua heldu zenean, Hegoako ikerketa taldeak honako galdera hau egin zion EHNE-Bizkaia sindikatuari: *Zer landu behar da, zuen ustez, Euskal Herriko nekazarien mugimendua indartzeko?* Horri erantzunez, sindikatuak elikadura burujabetzari eta agroekologiari buruzko unibertsitate prestakuntza bat martxan jartzea beharrezkoa zela seinatu zuen. Izan ere, momentu horretan, euskal unibertsitate eremuan, ez zen gai horiei buruzko prestakuntza eskaintzarik.

EHNE-Bizkaia identifikatutako eta adierazitako behar horren ondorioz, 2012an, Baserritik Mundura ikastaroa sortzeko eta diseinatzeko lehenengo urratsak eman genituen elkarrekin.

3.1. Ereintza... prestakuntza proposamenaren eraikuntza eta diseinua (2012-2015)

Lehenengo faseak 3 urte inguru iraun zuen. Horretan, lau urrats handi egin ziren.



Ikastaroa eraikitzeko eta diseinatzeko egindako urratsen irudikapen grafikoa. Iturria: Baserritik Mundura artxiboa.

I. urratsa (2012-2013)

Beste testuinguru batzuetako zenbait heziketa esperientzien diagnostikoa-mapaketa eta horiek zuzenean ezagutzea

Fase honetan **talde eragile misto**⁶ bat eratu zen. Horrek diagnostiko bat egin zuen, estatu mailako eta nazioarteko beste testuinguru batzuetan, agroekologiari eta elikadura burujabetzari buruzko prestakuntza esperientziak mapatzen zituena⁷. Gainera, taldeak, erreferentetzat hartutako *esperientzia horiek bisitatu eta horietan zuzenean parte hartu* zuen, horiek zuzenean ezagutzeko eta horietatik ikasteko helburuz.

Diagnostiko horretan bildutako informazioa, zenbait dokumenturen bitartez, talde eragilean aurkezten, eztabaidatzen eta egiaztatzen zen. Izan ere, dokumentu horiek, euskal testuingurura egokitzeko eta lantzeko moduko elementu berritzaileak identifikatzen zituzten esperientzia horietan, pedagogia, antolaketa eta politika mailan. Horrek guztiak, bada, prestakuntza eskaintzaren ikuspegi konplexuago bat eman zuen, baita proposamena diseinatzeko alderdi garrantzitsuen definizioa ere.

II. urratsa (2014ko urtarrila-maiatza)

Hasierako proposamena idaztea, ekimena jendaurrean aurkeztea eta ekarpenak jasotzea

Fase honetan *ikastaroaren hasierako proposamenaren zirriborroa* idatzi zen. Horrek talde eragileak lortutako akordioak biltzen zituen eta LVCKo beste erakunde batzuekin modu autonomoan (ikastaro ez ofizialak) edo beste unibertsitate batzuekin batera (ikastaro ofizialak) garatutako esperientzietan ikasitakoak kontuan hartzen zituen. Lehen esan bezala, azkenik, Florestan Fernandes Eskola Nazionalaren (ENFF) esperientzia izan zen proposamen honen diseinuan eta erakuntzan erabilitako erreferentzia nagusia⁸.

2014ko maiatzean, talde eragileak ekimenaren aurkezpen publikoa egin zuen Donostian, "*Unibertsitatearen eta mugimendu sozialen arteko aliantza elikadura-burujabetzaren alde*" izenekoa⁹. Jardunaldi horietan, bada, eztabaida garrantzitsuak eman ziren, unibertsitatearen eta Euskal Herriko nekazarien mugimenduaren arteko lankidetzak prestakuntza eta ikerketa arloan dituen aukeren eta erronken inguruan. Eztabaidan zehar, nekazarien mugimenduko hainbat pertsonak, nolabait, "ikerketaren objektu" izatearekin nekatuta zeudela azaldu zuten. Zentzu horretan, prozesuak nekazarien mugimendua aintzat hartzea eta balioestea eta mugimendua prestakuntza proposamenaren fase guztietan subjektua izatea espero zutela adierazi zuten. Gero ikusiko dugun bezala, gai hori etengabeko kezka sortu du, ahalegin desberdinak eskatu ditu eta prozesu osoa markatu du.

⁶ Talde eragileak EHNE-Bizkaia sindikatuko eta Hegoako ikerketa taldeko hainbat kidek osatzen zuten. Horretan, honako hauek batzen ziren: nekazaritzako eta diziplina akademiko desberdinetako (ekonomia, soziologia, antropologia, etab.) profila; nekazaritzako, landa eremuko eta hiriko gizarte kolektiboetan eta mugimenduetan egindako ibilbide militante desberdinak; eta komunitate eta landa eremuetako dinamizazio prozesuen inguruko esperientziak.

⁷ Fitxan honako hau jasotzen zen: heziketa prozesuaren izena, erakunde antolatzaileak, heziketa prozesu mota, publiko hartzaileak, sartzeko baldintzak, modalitatea/formatua, edukiak, irakasleak, erabilitako metodologiak eta ikaspenak.

⁸ Lehenengo zirriborro horretan, ENFFren ezaugarri diren hiru elementu hauek agertzen ziren: a) ikasleen eta talde pedagogikoaren *organizitatea*, hau da, horien antolakuntza egitura kolektiboetan; b) ikastaroa *txandaketa sistema* baten bitartez antolatzea, hau da, elkarbizitzako topaketak (Unibertsitate Denborak) eta lurralde bakoitzean autoantolatuz lan egitekoaldiak (Komunitate Denborak) txandakatuz; eta c) Hegoako eta EHNE-Bizkaia/Etxaldeko zenbait kidek osatutako KPP mistoak prozesu osoa laguntzea.

⁹ EHNE-Bizkaia sindikatuaren web orrian jardunaldian parte hartzeko gonbidapena ikus daiteke: <www.elikaherria.eus/jornada-alianza-entre-universidad-y-movimientos-sociales-a-favor-de-la-soberania-alimentaria>.

Aurkezpen publikoaren ondoren, hasierako proposamen hori eztabaidatzeko mintegi bat egin zen Zerainen (Gipuzkoa)¹⁰. EHNE-Bizkaiak eta Hegoak zenbait pertsona gonbidatu zituen horretan parte hartzera, pertsona horiek proposamenarekin modu desberdinetan inplikatzeko helburuz (irakasleak, laguntza instituzionala, ikerketen bide-laguntza, etab.).

III. urratsa (2014ko ekaina- 2015eko apirila)

Ekarpenak batzea eta lehenengo edizio pilotu baterako babesak lortzea

Zerainen ospatutako mintegia garrantzitsua izan zen. Izan ere, proposamena hobetzeko ekarpenak jasotzeko balio izan zuen, proposamenaren eraikuntzan irakasleen konpromiso handiagoa sustatu zuen eta irakasgaien eduki batzuk zehazten lagundu zuen. Zerainen sortutako eztabaidetan sakontzearen talde eragileak biltzen jarraitu zuen. Halaber, taldeak, jasotako akordioak eta ekarpenak txertatu zituen behin betiko proposamen bat garatzeko. Gainera, lehenengo edizio pilotu bat martxan jartzeko finantzamendua lortzeko estrategia bat zehaztu eta abiatu zen.

IV. urratsa (2015eko maiatza-2015ko abendua)

Diseinua amaitzea, talde pedagogikoak aktibatzea eta materialak prestatzea, lehenengo edizioa martxan jartzeko

2015eko maiatzean lehenengo edizioa martxan jartzeko beharrezkoa zen finantzamendua lortu genuen¹¹. Fase hori funtsezkoa izan zen, finantzamenduak markatzen zituen epeen arabera 6 hilabete besterik ez baitzegoen prestakuntza proposamena definitzen amaitzeko eta kolektibo desberdinak martxan jartzeko. Talde eragileak funtsezko zenbait kontu zehaztu zituen, baina beste zenbait ez; ekimena martxan jarriko zuen taldeak, hau da, KPPak eta irakasleek zehaztu beharko baitzituzten horiek. Gainera, proposamenean parte hartzen zuten pertsona askorentzat ikastaroaren metodologia erabat berria zen; hortaz, alde batetik ikastaroaren ikuspegi politikoa eta ikerketa ikuspegia zehaztu behar genuen eta, bestetik, guztion artean LVCren prestakuntza prozesuen printzipio politiko, pedagogiko eta antolatzaileak Euskal Herriko testuingurura nola moldatu eta garatu azaldu eta pentsatu behar genuen. Hala. 2015eko maiatzean honako aurrerapauso hauek eman ziren:

- * Ekimenaren sustatzaileek (Hegoak/EHNE-Bizkaiak) beharrezkoak ziren pauso instituzionalak eman zituzten: lankidetzaren hitzarmenak sinatu, langileak kontratatu, etab.
- * Koordinazio Politiko Pedagogiko (KPP) taldea eratzeko lehenengo batzarrak egin ziren. Garrantzitsua zen prozesu hasieran KPP jendetsu bat izatea, 12 pertsonak osatua. Horretan, talde eragileaz gain nekazaritza eremuko beste zenbait pertsona sartu ziren, EHNE-Bizkaia sindikatuarekin eta Etxalderekin

¹⁰ Mintegia talde eragileak dinamizatu zuen. Horretan honako hau egin zen: a) proposamenari eta, batez ere, proposatutako gako metodologikoen eta edukien inguruan egindako ekarpenak jaso (proposatutako 10 irakasgaien egokitasuna, edukien antolaketa, beste gai batzuk sartzea, gai bakoitzaren edukiak zehaztea, horiek dinamizatzeke irakasleak proposatzea, etab.); b) eztabaidatzeko eta lan egiteko eremu egonkorak ezarri, ekimena martxan jartze aldera.

¹¹ Ikastaroaren lehenengo ediziorako (2015-2016) finantzamendua Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika Sailaren eta Hegoaren artean sinatutako lankidetzaren hitzarmen baten bitartez lortu zen.

lotura zutenak. Bestalde, momentu horretan, KPPa mistoa izatea garrantzitsua zela erabaki genuen. Izan ere, akademia/unibertsitate eremuaren eta nekazaritza eremuaren arteko antolaketa eta osagarritasuna bermatu nahi genuen, elkarrekin abiatu nahi genuen heziketa prozesuaren ezaugarriekin bat etorriz. Halaber, EHNE-Bizkaia eta Etxalde prozesu hasieratik adierazitako kezka bati erantzun nahi genion; hau da, nekazarien mugimendua prozesuaren subjektu izatea, eta ez proposamenaren diseinuan bakarrik, baizik eta garapenean ere.

2015eko ekaina eta uztaila artean, KPPa lan eta lan aritu zen ikastaroaren estrategia politikoa, metodologia pedagogikoa eta ikastaroaren helburuak zehazten amaitzeko. Lehenengo batzarretako erregistroetan ikusten den bezala, azkenean honako estrategia hau zehaztu zen: *"eremu desberdinetatik eta lurralde eta ikerketa ikuspegi bat erabiliz, elikadura burujabetza eraikitze lan egiten duten subjektuak eta prozesuak prestatzea/ antolatzea, nekazaritza sektorea biziberritzeko eta Etxalde euskal nekazarien mugimendua sendotzeko helburuz"*. Ikastaroa martxan jartzeko zehaztutako helburuak taula honetan biltzen dira:

1. taula. Baserritik Mundura ikastaroaren helburuak ¹²	
Helburu orokorra	
<ul style="list-style-type: none"> • Prestakuntza, ikerketa eta eztabaida eremuak zabaltzea, elikadura burujabetzaren agenda emantzipatzailea hori inplementatzen duten eragile sozial eta instituzionalen artean sendotzeko. 	
Helburu espezifikoak	
<ul style="list-style-type: none"> • Heziketaren, ikerketaren eta gizarte sektore desberdinen arteko aliantzak zabalduz, nekazaritza sektorea eta Euskal Herriko nekazarien erakundeak sendotzea, ikuspegi kiritiko eta internazionalista bat erabiliz. 	
<ul style="list-style-type: none"> • La Via Campesinaren heziketa prozesuen ezaugarri den Herri Hezkuntzaren printzipioen eta metodologiaren bitartez, 25 pertsona elikadura burujabetzan eta agroekologian trebatzea. 	
<ul style="list-style-type: none"> • Ikastaroan garatutako ikerketa prozesuak honako hauekin lotzea: Euskal Herriko nekazarien mugimenduak identifikatutako ikerketa lehentasunak eta elikadura burujabetza eta agroekologia Euskal Herrian inplementatzeko helburua duten prozesu sozial eta/edo instituzionalak. 	
<ul style="list-style-type: none"> • Gero eta erakunde, gizarte eragile eta instituzio gehiagok elikadura burujabetzaren ikuspegiaren osotasuna eta hori inplementatzeko aliantzak sortu beharra ulertzea. 	
<ul style="list-style-type: none"> • Ezagutza eta eragin kritikoak eraikitzen laguntzea, nekazaritza industria eredu globalizatua eta horrek beste menperatze sistema batzuekin (kapitalismoa, patriarkatua, etab.) dituen loturak aztertzeke tresnak emanez eta horrek Euskal Herrian dituen ondorio sozial, politiko, ekonomiko, kultural eta ekologikoak identifikatuz. 	

Bi hilabete horietan, KPPak *irakasle taldea* aktibatzeke lan proposamena amaitu zuen. Gainera, honako hauei lotutako hainbat zeregin planifikatu eta koordinatu ziren: nekazaritzako gaiak, unibertsitate gaiak eta gai instituzionalak, alderdi pedagogikoak, metodologikoak eta logistikoak. Horretarako, bada, KPPa hiru lantaldetan eta idazkaritza operatibo batetan egituratu zen. Halaber, ikastaroaren garapenerako zehaztutako egitura antolatzailea eta azken fase horretan izandako eztabaidetan lortutako adostasunak Proposamen

¹² Helburuak berberak izan dira egindako edizio bietan. Bigarren edizioan, bigarren helburua apur bat aldatu zen eskaintako plazak 25etik 30era handituz. Horien artean 15 plaza emakumeentzat gorde ziren eta 7 nekazari erakundeetako kideentzat.

Politiko Pedagogikoan (aurrerantzean, PPP) biltzen dira. Hori ere MST/ENFFk garatutako heziketa prozesuen bereizgarri bat da eta, aurrerago, horretan sakonduko dugu.

PPPa eta ekimena hedatzeko eta martxan jartzeko dokumentuak eta materialak guztion artean egin genituen, KPParen proposamenetan oinarrituz. Gainera, proposamen horiek irakasle taldearen ekarpenen bitartez kontrastatu eta hobetu genituen. Hala, irakasleak proposamenaren diseinuan eta eraikuntzan inplikatzeko lortu genuen eta ez bakarrik irakasgaiaren eraikuntzan. Hori dela eta, proposamena diseinatzeko azken fase horretan, beharrezkoa zen talde pedagogiko osoa (KPPa+irakasle taldea) martxan jartzea. Hala, talde eragileak egindako proposamenetatik eta kontaktuetatik abiatuz, KPPak 2015eko uztailan ospatuko zen lehenengo mintegi pedagogikorako deialdia luzatu zien beren konpromisoa berretsi zuten irakasleei.

Irakasle taldea nahiko heterogeneoa zen. Hori hainbat eremutik (akademikoa, soziala, nekazaritza, sindikala, etab.) zetozen 20 pertsonak osatzen zuten. Hortaz, lehenengo mintegi horretan irakasleekin izandako eztabaidak eta egindako ekarpenak oso garrantzitsuak izan ziren honako hauetarako: ikastaroaren¹³ egutegia eta irakasleak bikote pedagogikoen arabera antolatzeko proposamena baliozkotzeko, horien ekarpenak jasotzeko, beren itxaropenak ezagutzeko eta horiek ikastaroaren eraikuntzarekin eta martxan jartzearekin zuten konpromisoa zehazteko. Halaber, mintegiak balio izan zuen talde pedagogikoak kolektiboan lan egiteko eremuak sortzeak zuen garrantziaz jabetzeko; eremu horiei, bada, *Mintegi Pedagogikoak* deitu genien¹⁴.

2015eko irailean, KPPak honako eginkizun hauek hartu zituen bere gain: ikasleen aukeraketa eta matrikulazio prozesua eta ikastaroaren zabalkuntza estrategia zehaztea. Hala, hasieran pentsatutako izena aldatu zuten hori erakargarriago bihurtzearen eta honako hau izan zen behin betiko izena: *Baserritik Mundura: gure elikaduraren etorkizuna jokoan. Elikadura Burujabetza eta Agroekologia Ikastaroa*. Ikastaroa zer nolako profiei zuzentzen zitzairen eta proposamenaren berritasuna kontuan hartuta, horren ezaugarri nagusiak azaltzeko dokumentuak sortu ziren¹⁵ eta ikastaroa irrati-elkarrizketen, prentsa-artikuluen eta hitzaldien bitartez zabaldu zen.

13 Proposamen metodologikoa azaldu zen, baita horren jatorria, datak eta irakasleak bikote pedagogikoetan antolatzeko proposamena ere (profilak osagarriak izan zitezten, beren heziketa-ikuspegiari, ibilbideari eta jatorriari, generoari, hizkuntzari eta abarri dagokienez). Hala, bikote pedagogikoei elkar ezagutzeko eta lan-proposamenari ekarpenak egiteko denbora eman zitzairen.

14 Lehenengo edizioan zehar 7 mintegi pedagogiko egin ziren (4 ikastaroa hasi aurretik eta 3 lehenengo edizioan zehar). Horietan parte-hartze altua izan zen. Hala, jasotako balorazioen arabera, mintegiek honetarako balio izan zuten: a) irakasle taldea herri hezkuntzako eta parte hartzeko ikerketa-ekintzako metodologietan trebatzea; b) ikastaroaren proposamen metodologikoaren ikuspegi globala lortzea, irakasgai bakoitzak erabilitako ikuspegiarekin, edukiekin eta metodologiekin bat etor zedin; c) elkarrekin egitura eta gida didaktikoak adostea eta lantzea; eta d) mailaka, irakasgai bakoitzaren edukiak eta metodologia zehazten amaitzea, horiek prozesuaren eta ikerketen eskaereta egokituz.

15 Hemen: <http://pdf2.hegoa.efaber.net/entry/content/1699/triptikoa_web_hegoa.pdf> (triptikoa), <http://pdf2.hegoa.efaber.net/entry/content/1685/infoweb_Curso_Soberania_Alimentaria_Hegoa-ETXALDE-EHNEBiz_cast.pdf> (zabalkuntza handiko dokumentua),

2. taula. Baserritik Mundura zer nolako profilei zuzentzen zaien
Baserritarrak eta Euskal Herriko nekazaritza sektorean instalatzeko prozesuetan dauden pertsonak.
Gizarte erakunde eta mugimenduetako militanteak, aktibistak eta liberatuak: nekazarien sindikatuak eta Euskal Herriko nekazarien mugimendua, sindikatuak, ekonomia sozial eta solidarioko erakundeak, kontsumo alternatiboko ekimenak, GGKEak, kolektibo feministak eta gazte kolektiboak, etab.
Administrazio publikoetan lan egiten duten pertsonak, Elikadura Burujabetzaren inguruko gaietan (lurralde antolamendua, landa garapena, tokiko ekonomia garapena, etab) ardurak dituztenak.
Unibertsitateko eta Nekazaritza Eskoletako Ikasleak, Elikadura Burujabetzaren eta Agroekologiaren ikuspegietan sakontzeko interesa dutenak.
Eremu desberdinetatik Elikadura Burujabetzaren praktikan aktiboki parte hartzeko borondatea duten pertsonak: kontsumoa, ekonomia soziala eta solidarioa, finantza etikoak, hezkuntza, komunikazioa, landa garapenerako agentziak eta elkarteak, etab.

3.2. Hazkuntza... edizio biak martxan jartzea eta garatzea (2016-2018)

Bigarren faseak ere 3 urte iraun zuen eta hiru urrats handi izan zituen.

I. urratsa (2016ko urtarrila-urria)

Lehenengo edizioa garatzea, ikasleek Piztu da Hazia! izendatu zutena.



Piztu da Hazia! edizioaren 4 etapak eta 4 LNak. Iturria: Baserritik Mundura artxiboa.

Ikasleak 4 lantaldetan antolatuta zeuden. Lantalde horiei "Lurralde Nukleo" (LN) esaten diegu. Bestalde, ikastaroa 4 etapatan garatu zen eta etapa bakoitza, bere aldetik, 4 Unibertsitate Denboratan eta 3 Komunitate Denboratan banatzen zen. Unibertsitate denborak (UD), Euskal Herriko leku desberdinetan egindako 4 eguneko elkarbizitza topaketak dira. Komunitate Denborek (KD), aldiz, zenbait hilabete irauten dute eta, horietan, LNak irakasgaien edukiak lantzeko eta ikerketa-ekintza prozesuak kolektiboki garatzeko antolatzen dira.

II. urratsa (2016ko azaroa-2018ko iraila)

Lehenengo edizioaren ondoren proposamena doitzea

Lehenengo edizioan identifikatutako ikaspenak aintzat hartuz, heziketa proposamenari zenbait aldaketa egin genizkion bigarren ediziorako. Horien artean honako hauek nabarmentzen ditugu:


- * Ikastaroa luzatzea erabaki genuen, 10 hilabetetik 13ra luzatuz. Horrela, heziketa prozesuari etapa bat gehitu genion.
- * Aldaketak egin ziren talde pedagogikoetan (KPParen osaera aldatu zen, bikote pedagogiko batzuk aldatu genituen horietan nekazaritza sektoreko pertsona gehiago sartuz; LNak eta beren ikerketak laguntzeko talde bat aktibatu zen).
- * Irakasgaien banaketa berrantolatu zen eta horien artean nekazaritza eta herri feminismoari buruzko irakasgai espezifikoak gehitu genuen.
- * Mintegi-jarduera irekiak sartu ziren (UDetan zein KDetan), nekazaritza sektoreko pertsonak parte hartzeko aukerak eta moduak zabaltzearren eta nekazaritzari buruzko edukiak lantzeko moduak dibertsifikatzearren. Horretarako jarduera ireki horiek eta esperientziei bisitak egitea uztartzen saiatu ginen.

Bigarren edizioko KPPa eratu ondoren, hori hileroko batzartu zen talde pedagogikoak berriro aktibatzeke eta edizioa garatzeko behar zen guztia prestatzeko.

III. urratsa (2017ko urria-2018ko azaroa)

Bigarren edizioa garatzea, ikasleek Besardakada izendatu zutena

Aurrerago ikusiko dugun bezala, horretan ikasle taldea 5 LNtan banatu zen eta ikastaroa 5 etapatan garatu zen (5 UD eta 4 KD). Hori hobetu ulertuko da dokumentu honetan aurrera egin ahala.



II. eta III. urratsak, Basardakada edizioko 5 etapekin eta 5 LNekin. Iturria: Baserritik Mundura artxiboa.

3.3. Euskal unibertsitate eremuan berezko nortasun berezia duen prestakuntza esperientzia

Baserritik Mundura esperientziari berezko nortasuna ematen dioten alderdiak honako hauei dagozkie: zer (elikadura burujabetzari eta agroekologiari buruzko prestakuntza eta ikerketa euskal unibertsitate eremuan), nor (erakunde sustatzaileak, kolaboratzaileak eta helburu duten irakasleen eta ikasleen profilak) eta, batez ere, nola, hori eraikitzeko *modua*, testuinguru desberdinetako ikaspenak eta esperientziak partekatzen lagundu duen prozesu baten bitartez. Honako hauen arteko elkarriketaren horizontaltasuna zainduz: Jakintza baserritarrak-akademikoak, hegoa-iparra eta landatarra-hiritarra.

Jakina, edizio bien diseinuaren eta garapenaren oinarrian dagoen logika kolektibo eta internazionalista funtsezko alderdia izan da Baserritik Mundura unibertsitate eremuko prestakuntza proposamen berritzaile eta bakarra izateko, bere arrakasta eta mugekin bada ere.

- * Ikastaroa Elikadura Burujabetzaren eta Agroekologiaren inguruan **euskal unibertsitatean dagoen hutsunea betetzeko** sortzen da, baina ez da ekimen akademiko baten bitartez sortzen.
- * LVCKo kide den nekazari sindikatu baten (EHNE-Bizkaia) eta unibertsitate institutu bateko **ikerketa talde baten arteko eraikuntza** bat da. Horretan, nekazarien erakundeak ezagutza subjektutzat hartzen dira, zeharkako modu batean. Hori, bada, ez da ohikoa unibertsitate eremuan ematen diren prestakuntza eta ikerketa prozesuetan.
- * **Ezagutza** eta unibertsitate publikoa **demokratizatzearen aldeko apustu** bat da.

- * Graduondoko titulazio bat barik, **unibertsitate hedakuntzako ikastaro** bat izatea erabaki genuen, honako hauen inguruan malgutasuna lortzeko¹⁶: ikasleen eta irasleen sarbiderako baldintzak; ikastaroaren metodo pedagogikoa eta antolaketakoa¹⁷.
- * Irakasleak **bikote pedagogikoen**¹⁸ arabera antolatzea eta diseinu fasean eta egindako edizio bitetan irakasleei emandako paper protagonista ere ez da batere ohikoa gainontzeko unibertsitate ikastaroetan.
- * Ikastaroaren **ikerketa ikuspegiak** eta ezagutzaren eraikuntza ulertzeko moduak honako hau bilatzen dute: jakintza desberdinen artean (baserritarrak, feministak, herrikoiak, teorikoak, praktikoak, etab,) elkarrizketa sortzea; ezagutza kolektiboa sortzea; eta ikuspegi agroekologikoarekin eta herri hezkuntzarekin bat datozen ikerketa-ekintza proposamenak sortzea.
- * Ikastaroaren **artikulazio eta lurralde ikuspegia** zeharkakoa da eta alde eta eduki teoriko, praktiko, metodologiko eta antolaketakoen bitartez lantzen da.
- * Ikastaroaren heziketa ereduak **bizipenean oinarritutako ikuspegi pedagogiko multidimentsionala** du. Eredu hori, bada, koherentea da elikadura burujabetzak eta agroekologiak proposatzen dituzten eraldaketen integritasunarekin, eta bat dator jakintza herritar eta baserritarrean oinarritzen den hezkuntza emantzipatzailearen kontzeptioarekin eta praktikarekin.
- * Hala, proposamenak elikadura burujabetzaren eraikuntzan unibertsitate publikoak funtsezko rola izan dezakeela planteatzen du, esate baterako, sustatzen dituen prestakuntza eta ikerketa prozesuen bitartez.

Jarraian, diseinuaren fasean zehaztutako helburuak eta asmoak ikastaroaren egitura antolatzailean eta edizio bietan erabilitako metodologia pedagogikoan nola islatzen diren landuko dugu. Horretarako, kontuan hartuko dugu hori etengabeko eraikuntzan dagoen prestakuntza proposamena izan dela, bere ingurua eta bere burua zalantzan jartzen duena eta bere ingurua eta bere burua eraldatzen joan dena.

16 Hezkuntza arauen menpe ez egoteagatik graduondoko ikasketek malgutasun handiagoa dute. Hala ere, Kalitatea Ebaluatze eta Akreditatzeko Agentzia Nazionalak (ANECA) graduondoko programa ofizialak akreditatzeko ezarritako kalitate irizpideek irakasleek prestakuntza akademiko maila jakin bat izatea eskatzen dute. Horrek, bada, akademiakoak ez diren irakasleen parte hartzea oztopatzen du. Bestalde, unibertsitate bakoitzaren graduondoko berezko tituluek irizpide horiek aplikatzeko malgutasuna badute ere, unibertsitateek beste irizpide batzuk ere ezartzen dituzte, esaterako, hauek: finantzamenduaren zati handi bat ikasleen matrikuletatik etortzea, edo graduondokoa egin ahal izateko ikasleek, alde aurretik, unibertsitate titulazio bat eduki behar izatea.

17 "Ofizialtasunak" zekartzan mugek proposamenaren koherentzia kaltetzen zuten. Zenbait irakasle nekazaritzaren eremutik etortzea lehentasun bat zen. Era berean, beren baldintzengatik edo bizitzaren erritmoengatik, edota eskatzen den titulazioa ez izateagatik kanpoan geratu ohi diren ikasleen profilen sarbidea hobetu nahi genuen. Hori da, hain zuzen ere, EHNE-Bizkaiak urtero antolatutako agroekologia ikastaroa egiten duten baserritarren kasua, edo nekazaritza eskoletan graduatutako ikasleen kasua. Izan ere, horiek titulazio tekniko-profesionala dute baina ez dute unibertsitate titulaziorik.

18 Generoari edo hizkuntzari buruzko gaiak eta ibilbide eta profil akademikoak profil baserritarrekin eta ikastaroaren gaiak lotutako beste profil profesional eta sozial batzuekin uztartzeko eta orekatzeko.

4. Baserritik Mundura esperientziaren proposamen pedagogikoa¹⁹

Lehen ere aipatu dugun bezala, Baserritik Mundura esperientziaren proposamen pedagogikoak LVCren prestakuntza politikoko eta agroekologikoko prozesuen ezaugarri den heziketa eredia Euskal Herriko testuinguruan txertatzen eta horretara moldatzen du. Izan ere, horrek Lurrik Gabeko Landa Langileen Mugimenduaren (MST) Florestan Fernandes Eskola Nazionalaren (ENFF) metodo pedagogikoa hartzen du erreferentzia nagusitzat²⁰.

ENFFren esperientziatik honako hau ikasi genuen: Euskal Herriko unibertsitate eremuan agroekologiaren eta elikadura burujabetzaren arloko edukiak dituen heziketa proposamen bat sortzea pauso garrantzitsua da. Baina LVCKo erakundeek ematen duten ikuspegi oinarritutako prestakuntza eta ikerketa proposamen bat eraiki nahi bagenuen, aurrean genituen erronkak hori baino konplexuagoak eta sakonagoak ziren. Prestakuntzaren metodologia eta heziketa eredia elikadura burujabetzaren eta agroekologiaren ikuspegiak dakartzan eraldaketa pertsonal eta kolektiboen integraltasunarekin bat etortzea da erronka horietako bat.

Bestalde, baserritarren jakintzak agroekologia proposatzen du elikadura burujabetza eta, elikagaien ekoizpenaren eta kontsumoaren bitartez, eraldaketa soziala eta pertsonala lortzeko bidean aurrera egiteko. Izan ere, LVCren heziketa proposamenek lurraldeen defentsan oinarritzen dira eta herrien funtsezko eskubidetzat hartzen dute elikadura eta ez salerosgaitzat. Proposamen horiek gainontzeko eremu sozial eta ekonomikoetan eta bizitzaren hainbat mailatan eta dimentsiotan ematen diren dinamika asko eraldatu beharra azpimarratzen dute; hau da, nekazaritzaren eremuaz harago doaz eta dimentsio anitzeko eraldaketa integralak sortu beharra nabarmentzen dute.

Beraz, Baserritik Mundura ikastaroaren diseinuan eta eraikuntzan zehar ahalik eta proposamen pedagogiko integralena saiatzeko eta eraikitzeko erronka kolektiboa geure egin genuen. Gure helburua, bada, proposamen horrek pertsonen heziketa dimentsio anitzak lantzea zen (arrazional-ideologikoa, emozionala, harremanekoa, pertsonala, kolektiboa, materiala, sinbolikoa, printzipioak eta balioak, artea, kultura, etab.). Zentzu horretan, honako hau onartu genuen: *metodologiari dagokion hori ez dela neutrala, politikoa dela; formak formatzen duela*²¹.

19 Lehenengo edizioaren ondoren Baserritik Mundura esperientzia ezagutzera emateko egindako bideoan ikastaroaren proposamen metodologikoa zertan datzan azaltzen da, lehenengo edizioan jasotako irudien eta testigantzen bitartez: <www.youtube.com/watch?v=0YRhD04oYKI>.

20 MSTk, bere historian zehar, hainbat hezkuntza zentzu eta praktika eztabaidatu ditu, hezkuntza eredu hegemonikoari aurre eginez eta bere arrakasta eta mugen bitartez esperientzia alternatiboak sortuz. Esperientzia horiek, bada, heziketa matrize integral, baserritar eta herritar batean oinarritzen dira; hau da, hezkuntza, eskola eta unibertsitate kontrahegemonikoen kontzeptio batean. Hala, ENFF nazioarteko proiektzioa duten esperientzia horietako bat da eta inspiratzailea izan da agroekologiari buruzko heziketa prozesu eta eskola askorentzat, LVCren barruan eta LVCTik kanpo.

21 Ideia horiek presentzia handia izan dute ikastaroan, batez ere MSTko militantea eta ENFFko irakaslea den Janaina Strunzaki esker. Bera, KPPko kidea izan da eta bere parte hartzea ezinbestekoa izan da esperientzia honetan.

4.1. Printzipioen metodoa: prestakuntza prozesua asmatzeko eta eraikitzeko bestelako modu bat

Lehenik, Baserritik Mundura esperientziaren diseinuan eta martxan jartzean elementu metodologiko bakanak txertatzeaz harago, ikastaroa bestelako modu batean asmatzeko eta eraikitzeko modu bat txertatu zen; prestakuntza eta hezkuntza praktika ulertzeko modu integral eta holistiko bat, alegia. Horrek ikuspegi aldaketa ekarri zuen; izan ere, hori ohiko ikastaro bezala pentsatu beharrean, bertan parte hartzen zuen pertsonen *heziketa prozesu kolektibo* bezala pentsatzera eta eraikitzeera pasatu ginen. Horretarako eta ENFF/MSTren eta LVCren esperientzietatik ikasiz, Baserritik Mundura esperientziak ez du Euskal Herriko testuinguruan metodo pedagogiko zehatz edo espezifiko bat txertatzen, *printzipioen metodoa* bazik.

Izan ere, LVCren prestakuntza politiko eta agroekologikoko prozesuak printzipioen metodoan oinarritzen dira eta horixe da, hain zuzen ere, beraien ezaugarri nagusietako bat. Printzipioen metodoa metodo pedagogiko dinamikoa da, izaera dialektikoa duena; errealitate bakoitzak printzipioekin interakzionatzen du eta, hala, sintesi metodologiko eta antolaketako berriak sortzen ditu²². Modu horretan, printzipio partekatuak dauden arren, prozesu bakoitza bakarra da eta berezko kontraesan eta erritmoak ditu. Izan ere, ikastaro bakoitzaren eraikuntza honako hauen menpe dagoela onartu beharra dago: talde pedagogikoen eta inplikaturako gizarte eragileek protagonizatutako hainbat elementu erabakigarri eta bitartekaritza, eta tokiko nekazaritzaren eta elikadura testuinguruaren berezitasunak.

Beraz, Baserritik Mundura esperientziak bere proposamen pedagogikoaren bitartez proposatzen duen heziketa eredu LVCren prozesuek partekatzen dituzten printzipioetan oinarritzen da eta horiek moldatzen ditu. Hala ere, horiez gain, esperientzia horrek, prestakuntza prozesua eta Euskal Herriko testuinguru direla eta, beharrezkotzat hartutako beste printzipio batzuk gehitzen ditu. Beraz, ulergarria da Baserritik Mundura esperientzian aurkitzen ditugun zenbait printzipio eta tresna metodologiko ENFFk, MSTk edo LVCK²³ garatutako beste esperientzia batzuetan ere aurkitzea; baina horiek modu berezi batean gauzatzen dira Baserritik Mundura esperientzian.

22 LVCK egindako heziketa politikoko eta agroekologikoko hainbat esperientziak (eskolak, ikastaroak, mintegia, etab.) elementu metodologiko eta pedagogiko batzuk partekatzen dituzte baina horiek modu desberdinetan gauzatzen dira esperientzia bakoitzean, berezko sintesi metodologikoak sortuz, eta zenbait egilek aipatu duten *gorabidean dagoen pedagogia baserritar eta anitza* eratuz (Batista, 2014; Rosset, 2015).

23 Honako hauek dira Baserritik Mundura proposamenak LVCren beste heziketa-prozesu batzuekin partekatzen dituen printzipioak: a) organizitatea; b) ikastaroa txandakatze sistemaren bitartez antolatzea (Unibertsitate Denbora-Komunitate Denbora); c) jakintzen arteko elkarriketa eta esperientziak modu horizontalean partekatzea ezagutza sortzeko funtsezko prozesuak izatea; d) praxia zeharkako printzipio pedagogikoa izatea, eraldatuz nork bere burua eraldatzea; f) mistikaren heziketa-dimentsioa; g) internazionalismoa zeharkako printzipio filosofikoa izatea; h) heziketa-prozesua KPP batek laguntzea (Casado, 2018).

3. taula. Baserritik Mundura esperientziaren proposamen pedagogikoaren printzipioak		
Printzipio filosofikoak	Printzipio antolatzaileak	Printzipio pedagogikoak
<ul style="list-style-type: none"> • Gizartea eraldatzeko prestakuntza: lurraldean errotua, ekintzara bideratua, berria den horretara irekia. • Prestakuntza etengabeko eraldaketa prozesu bezala: giza eraldaketa, zapalketa harremanen eraldaketa (klasea, generoa, adina, hezkuntza, hizkuntza, landatarra/hiritarra, etab.). Emantzipazio pertsonal eta kolektiboa lortzeko prestakuntza. • Jakintza desberdinen lankidetzarako eta kolaborazio horizontalerako prestakuntza. Jakintza guztiak dira erabilgarriak, beharrezkoak eta osagarriak. • Prestakuntza integrala, ikastaroaren eremu eta momentu guztietan pertsonaren dimentsio guztietara bideratua (kognitiboa, ideologikoa, emozionala, espirituala, fisikoa, sormeneko, harremaneko, etab.). 	<ul style="list-style-type: none"> • Prozesua mugitzen duen egitura antolatzaile kolektiboa zehaztea (Organizitatea) • Aniztasuna eta Oreka lantaldeetan eta koordinazioan (generoa, adina, nekazaritza/akademia, hizkuntza, prestakuntza). • Koordinazio eta plangintza kolektiboa. • Zeregin eta ardura kolektiboak banatzea. • Erabaki kolektiboak errespetatzea. • Elikadura burujabetzaren aldeko mugimenduarekiko lotura. • Prestakuntza prozesuaren bide-laguntza politiko pedagogikoa. • Prozesuaren ebaluazio kritikoa eta autokritikoa (banakakoa, kolektiboa eta prozesu osoarena). 	<ul style="list-style-type: none"> • Prestakuntza denboren eta eremuen txandaketa (UD-KD). • Praktika-teoria-praktika harreman dialektikoa. • Horizontaltasuna eta metodologia uztartzea honako prozesu hauen artean: jakintzen elkarriketa, ikerketa-ekintza, herri hezkuntza eta ezagutza kolektiboaren ekoizpena. • Sozialki erabilgarriak diren heziketa edukiak; elikadura burujabetzaren aldeko zenbait gizarte eragilek lurraldean sustatzen dituzten prozesuak sendotzen dituztenak. • Hezkuntza prozesuaren eta elikadura burujabetzaren aldeko euskal mugimenduaren arteko loturak sortzea. • Parte hartzaileen autoantolaketa kolektiboa, heziketa esperientziaren parte bezala ikastaroaren ardurakidetzat kolektiboa sustatuz. • Asmo hezigarri integrala. Egiten dugun guztia eta hori egiteko modua hezigarria da; eremu eta denbora guztiak ikasteko aukerak dira. • Kolektibo pedagogikoak eta etengabeko prestakuntza sortzea. • Parte hartzeko prozesuak ikertzeko, antolatzeko eta dinamizatzekeo jarrera eta gaitasuna, Euskal Herriko elikadura burujabetzaren eraikuntzan aurrera egiteko. • Prozesu pedagogiko individual eta kolektiboak uztartzea.

Iturria: Egilea, barne dokumentuetan oinarrituz.

Ondorengo ataletan, Baserritik Mundura esperientzian printzipio horiek nola zehaztu eta martxan jarri diren azalduko dugu. Nolanahi ere, azaltzeko eta aztertzekeo helburuz zenbait alderdi eta dimentsio sakonago ikertu ditugun arren, honako hau azpimarratu nahi dugu: Baserritik Mundura esperientziaren proposamen metodologikoa osagarri metodologiko eta gizatiarretan eta horien arteko interakzioetan oinarritzen da. Beraz, proposamen metodologikoa ezin da ikuspegi zatitzaile batetik ulertu, ezta beren testuingurutik kanpo jarritako osagarri eta tresna metodologikoen multzo bezala aztertu ere.

4.2. Baserritik Mundura esperientziaren hezkuntza giroa sortzeko hiru gako metodologiko

Baserritik Mundura ikastaroa eraikitzean eta martxan jartzean, ENFF/MSTren esperientziatik ateratako beste ikaspen bat ere gogoan izan zen; hain zuzen, prozesu pedagogiko osoaren integritasuna zaintzearen eta helburu bihurtzearen garrantzia, parte hartzaile guztiak prozesuaren eraikuntzaren eta garapenaren subjektu zirela senti zezaten. Hau da, *hezkuntza giroa sortzearen* garrantzia, horren eraikuntza eta zehaztutako printzipio filosofikoak, antolatzaileak eta pedagogikoak oinarri hartuta.

Hori, bada, eduki programa bat sortzeaz, saioetako metodologian talde dinamikak txertatzeaz edo lurraldeetako esperientzia agroekologikoak bisitatzeaz harago doa. Izan ere, Baserritik Munduran MSTk sortutako hezkuntza giro nozioa erabiltzen dugu; hau da, ikasketa prozesuen antolaketa metodologia bat, hainbat jarduera eta kolektibitatean izateko moduak eta jarrerak uztartzen dituen. Praktika metodologiko horiek erabiltzen dituen ikastaro edo eskola bateko kidea zarenean, hori azaltzea, nolabait, sentitzea edo sumatzea baino zailagoa da.

Hezkuntza giro bat sortzeak aurretiko lan eta plangintza kolektiboa eskatzen du asmo pedagogiko bat emateko: ikastaroa antolatzeko modua; heziketa prozesuaren eremu eta denbora desberdinak eta, heziketa dimentsio desberdinak lantzearen, forma horrek sortzen dituen gizarte harremanak; eta prozesuan zehar sortzen diren ikasketa egoera desberdinak baliatzeko eta sustatzeko ikuspegia eta gaitasuna garatzea. Horrek guztiak heziketa prozesuaren integritasuna ulertzeko modu berezi bat dakar. Halaber, ulertzeko modu hori ikastaroaren egituraren bertan, bere metodologia pedagogikoan eta ikastaroa eta bere protagonistak antolatzeko *moduan* gauzatzen da.

Bere heziketa prozesuetan hezkuntza giroa sortzeko ENFF/MSTk erabiltzen dituen hiru tresna metodologiko hauek azpimarratu nahi ditugu:

- Bide-laguntza politiko pedagogikoa. Hori Koordinazio Politiko Pedagogiko (KPP) izeneko taldeak egiten du.
- Proposamen Politiko Pedagogikoaren (PPP) definizio kolektiboa, hori etengabeko eraikuntzat hartzen duena.
- Ikastaroak/eskolak antolatzeko metodologia, hezkuntza dimentsio desberdinak kontuan hartzen dituen.

Jarraian, Baserritik Mundura esperientziak hiru tresna metodologiko horiek Euskal Herriko testuinguruan nola txertatzen eta moldatzen dituen ikusiko dugu.

4.2.1. Bide-laguntza Politiko Pedagogikoa

Lehen aipatu dugun bezala, Baserritik Mundura esperientzian, KPPa proposamen pedagogikoaren azken fasean eratu zen. Momentu hartan, KPPak kide asko izatea erabaki zen, ikastaroa martxan jartzeak eskatzen zuen lan handiagatik. Beraz, hasiera batean, 12 kidek osatzen zuten KPPa²⁴. Horiek, bada, eremu desberdinetako profilak eta esperientziak zituzten (nekazaritza, unibertsitatea, gizarte mugimenduak, herri hezkuntza).

²⁴ Aipatu beharra dago KPPan izandako kideen artean bik bakarrik izan zutela ordain partziala horretan egindako lanagatik.

Taldea eratu zenetik, KPPa ere ikastaroaren heziketa eremu bat zela azpimarratu zen; izan ere, erabiltzen ari zen metodologia ezagutzen ez zuten pertsona horientzat, hori alderdi garrantzitsu bat zen. Halaber, KPPa instantzia kolektiboa izatea erabaki zen, heziketa prozesuari buruzko erabakiak hartzeko eremua, alegia. Hala ere, izaera instituzionaleko erabakiak, nolabait, ikastaroa bultzatu zuten erakundeetako zuzendariekin batera hartuko ziren (Hegoa eta EHNE-Bizkaia).

Bestalde, denboraz, KPParen egitura eta osaera²⁵ zenbait faktoreren arabera aldatu da. Hala, azken atalean ikusiko dugun bezala, egindako edizio bietan, bide-laguntza politiko pedagogikoak ere bere gorabeherak izan ditu. Nolanahi ere, KPParen profil aniztasuna (prestakuntza, adina, hizkuntza, ibilbidea, esperientziak, komunikazio estiloak, konpromiso militante mailak, inplikazioa eta eginkizunen banaketa) oso garrantzitsua izan da esperientzia hori politikoki eta pedagogikoki sostengatzeko beharrezkoa den osagarritasuna eta dedikazioa bermatze aldera.

Baina nola ulertzen da bide-laguntza politiko pedagogikoa Baserritik Mundura esperientzian? Bi fase edo momentu hauek bereizten ditugu: prozesua prestatzeko laguntza; eta prozesua printzipio filosofikoen arabera garatzeko laguntza. Bi fase horietan zaintzen dira, alde batetik, prozesu politiko-antolatzaile eta pedagogikoari lagun egitea; eta, bestetik, gaien, ikastaroaren edukien eta garatutako ikerketen inguruko bide-laguntza.

Ondoko taulak edizio bien prestakuntzan eta garapenean KPPak izandako eginkizunak biltzen ditu.

4. taula. KPParen eginkizunak Baserritik Mundura ikastaroan

- Ikastaroa laguntzea eta adostutako printzipioen arabera garatzen dela bermatzea.
- Alde logistikoa bermatzea, UDetan zein KDetan.
- LNen, bikote pedagogikoen eta LNeK garatutako ikerketak orientatzen dituzten pertsonen prozesuak erraztea eta horien eskaerei erantzuna ematea.
- Ikastaroaren dimentsioak, logikak eta edukiak artikulatzea prozesuaren koherentzia bermatzearren.
- Sortzen diren balorazioak/proposamenak jasotzea eta lantzea, etapa eta edizio desberdinetan ikastaroa doitzeko.
- LNei eta KDetan garatutako ikerketa prozesuei bide-laguntza ematen zaiela bermatzea.
- Epe ertain eta luzean prozesuaren iraunkortasuna bermatzen duen estrategia diseinatzea.
- Eremu bakoitzari asmo pedagogikoa ematea eta gertatzen diren gauzak prestakuntzarako baliatzea.
- Blokeo edo paralisi momentuak elkarrekin identifikatzea eta aztertzea eta heziketa prozesuak aurrera eramateko proposamenak sortzea.
- Prozesuaren funtzionamendu orokorra eta ikastaroa bultzatzen duten kolektiboen artean eta talde osoan komunikazioa ona eta harmonia daudela bermatzea.
- Heziketa prozesuak elikadura burujabetzaren aldeko mugimenduarekiko lotura duela eta bere helburuak lortzen dituela bermatzea.

25 Proposamena diseinatzeko eta martxan jartzeko momentuan KPPa 12 pertsonak osatzen zuten (7 emakumek eta 6 gizonak); lehenengo edizioko bide-laguntza zuzen eta jarraitua emateko 8 pertsonak osatzen zuten (7 emakumek eta gizon batek); eta bigarren edizioko bide-laguntza zuzen eta jarraitua emateko 7 pertsonak osatzen zuten (6 emakumek eta gizon batek). Azpimarratzekoa da 6 emakume KPPko kideak izan direla hori sortu zenetik; horiek lan desberdinak egin eta inplikazio maila desberdinak izan dituzte edizio bietan.

Egindako edizio biek prozesuaren bide-laguntzaren ahalmenak, ikaspenak, mugak eta erronkak identifikatzeko balio izan dute. Horiek azken atalean landuko ditugu. Aldi berean, edizio biek Baserritik Mundura esperientzian bide-laguntza politiko pedagogikoa zer den eta nola ulertzen den elkarrekin bizitzeko, eraikitze eta zehazteko ere balio izan dute.

Baserritik Mundura esperientziaren hezkuntza praktika hori honako helburu hauek dituen tresna metodologikoa da: maila indibidual zein kolektiboan heziketa prozesuaren benetako mugimendua eta bere kontraesanak laguntzea; nork bere burua eta ikastaroan parte hartzen duten pertsonak ezagutzea; heziketa prozesuaren inguruan dialektikoki hausnartzea, horretan parte hartzen duen taldearekin batera, eta elkarrekin bizi den bitartean; ikastaroan egiten den horren inguruan eta, batez ere, *egiteko moduaren* inguruan hausnarketa kolektiboko prozesu bat sustatzea. Horrek, beraz, pentsamendua eta ekintzak ulertzen laguntzen du, baita edukiez eta printzipio antolatzaileez, pedagogikoez eta filosofikoez jabetzeko prozesua ere. Azken finean, tresnak momentu bakoitzean ikastaroaren heziketa prozesua nola dabilen hausnartzeko aukera ematen du, banaka zein kolektiboki.

Hortaz, ez gara beste pertsona batzuen heziketa prozesua behatzen eta ebaluatzen ari, prozesuaren parte izango ez bagina bezala. Ez da kontrolatzea, ikuskatzea edo dependentzia egoerak sortzea ere. Etengabeko bide-laguntzak, aitzitik, ikastaroak eragiten duen ikasketa prozesua politizatze eginkizuna du. Horretarako, hezkuntza denborak, egoerak edota egunerokoan logikoki sortzen diren ezustekoak, tentsioak eta gatazkak baliatu nahi ditugu eta horiek ikasketa indibidual eta kolektiborako aukera bezala sustatu.

Baserritik Mundura esperientzian, bide-laguntza pedagogikoa ekintza politikoa eta afektiboa ere bada; izan ere, harreman pedagogikoak harreman pertsonalak eta politikoak dira. Hala, bide-laguntzaileak zaindu egiten du, bertan dago, behatzen du, zalantzak sortzen ditu, iradokitzen du, irakasten du, dinamizatzen du, errazten du, erabaki kolektiboak gogoratzen ditu, lan eta tentsio eta gatazka kolektiboen inguruko hausnarketa sustatzen du eta hezkuntza prozesuan zehar sortzen diren iradokizunei, ekarpenei, beharrei eta kritikei erantzuna emateko lan egiten du. Hala ere, prozesu pedagogiko kolektiboan beharrekoa den rol bereizi bat duen arren, bide-laguntzaile ere trebatzen da; heziketaren mugimenduan dago, beste zenbaitekin batera. Ez dago horretarako errezetarik; taldeak laguntzeko praktikan garatzen eta trebatzen diren gaitasunen bitartez landutako jarrera bat da²⁶.

4.2.2. Ikastaroaren Proposamen Politiko Pedagogikoaren (PPP) definizio kolektiboa

PPPa idaztea eta edizio bakoitzaren hasieran KPPan irakasle eta ikasleen artean lantzea... Hori nahi dugun ikastaro motaren eta ikastaroa mota hori garatzeko moduaren inguruan guztion artean hartutako adostasun bat da. Hau da, abiatze marko politiko, filosofiko, kontzeptual, metodologiko eta pedagogiko partekatua da eta hori, garatu bitartean, doitzen, moldatzen, ebaluatzen eta berregiten da, hezkuntza prozesuan parte hartzen duten beste subjektu guztiekin batera.

“Dokumentu hau orientaziorako marko politiko eta pedagogikoa da, ikastaroaren printzipioak, baloreak eta helburuak, haren eraikuntza bultzatzen duen testuingurua, proposamena gidatzen duen kontzeptu-markoa sintetizatzea xede izanik, azkenik, haren garapena eta bertan sortzen diren ikerketa-prozesuak orientatuko dituen

26 Honako hauek dira horietako batzuk: prozesuaren behaketa eta irakurketa, entzute aktiboa, enpatia, kritika konstruktiboa, nork bere burua kontrolatzea, inprobisazioa, talde ariketa eta eztabaidak irekitzea eta ixtea, jarrera korporala, bestak beste.

antolakuntza- eta metodologia-egitura aurkezten duena. Horrekin guztiarekin, jakinarazi nahi dizugu esku artean duzun dokumentua ez dela behin betiko dokumentua; ekimen hau bezala, etengabe eraikitzen ari den proposamena da, prozesuan parte hartzen dugun pertsona guztien behin eta berriro egindako berrikusketa kolektiboetara zabalik dagoena. Bestela esanda, dokumentu hau bide-orria da, dagoeneko partaide zaituen formazio-prozesu kolektibo honen norakoari eusteko balio izango digun iparrorratza" (Baserrik Mundura PPP, 2016:1).


Edizio bien hasieran, KPPak ikastaroaren PPPan dauden ideia nagusi hauek landu zituen, besteak beste: gauzatzeko prest dagoen proposamen bukatua barik etengabe eraikitzen ari den eta hobetu behar den proposamen bat dela ulertzearen garrantzia, "non parte hartzen duten pertsona guztiek zer eskaini eta zer jaso daukaten, ikasteko eta irakasteko, alegia"; "formazio-prozesuaren espazio, une eta dimentsio guztiek formaziorako potentzialtasuna dutela (...) ikastaroan zehar egiten dugun guztia eta lotuko gaituen guztia (...) formaziorako aukera bat dela"; eta zenbait printzipio eta balio dituen hezkuntza giroa bermatzeko eta eraikitzeko konpromisoa eta ardura hartzeko garrantzia:

"Prozesu hau eraikitzea eta abian jartzea erronka kolektiboa izan da, eta aurre egiterik ez genukeen edukiko umiltasun, sormen, malgutasun, konfiantza, konpromiso, diziplina, poz, internazionalismo, elkartasun, elkar zaintza, lankidetzeta, entzute, eta abarretik asko izango ez bagenu. Zuen guztiongan konfiantza daukagu balore horiek formazio-prozesu honen identitate eta filosofiaren ezaugarri izaten jarrai dezaten" (PPP Baserrik Mundura, 2016:1).

4.2.3. Hezkuntza dimentsio desberdinak kontuan hartzen dituen metodologia antolatzailea

Baserrik Mundura esperientzian hezkuntza giroa ikastaroaren antolaketa metodologiaren bitartez egiten da. Izan ere, metodologiak hezkuntza dimentsio desberdinak lantzeko denbora desberdinak aurreikusten ditu. Hori guztia, beraz, ikastaroaren egitura antolatzailean bertan islatzen da, baita hori martxan jartzen duten kolektiboak antolatzeko moduan ere.

Ondoko grafikoak Baserrik Mundura ikastaroaren dimentsio pedagogikoak irudikatzen ditu. Hau da, heziketa prozesuak eremu fisiko zehatzik ez duen arren, hezkuntza giro bat sortzen du dimentsio anitzeko heziketa prozesu pedagogikoa sortzen duten praktiken eta jarrerren bitartez. Dimentsio horiek, bada, osotasun baten zati dira eta, hortaz, elkarri lotutako dimentsioak dira, elkarren artean teilakatuak eta hierarkiarik gabekoak. Hala, guztiek dute zentzua, guztiak garatzen dira eta elkar indartzen dute; izan ere, bereizi beharrean hezkuntza prozesuaren osotasunaren parte dira.



7. irudia. Baserritik Mundura ikastaroaren dimentsio pedagogikoak. Iturria: Casado (2018).

Dimentsio horiek guztiak MSTren Florestan Fernandes Eskola Nazioalaren (ENFF) proposamen pedagogikotik hartu ditugu²⁷.

²⁷ Era berean, Hego Amerikako LVCren hainbat eskola eta prestakuntza politikoko prozesutan aurkitzen ditugu.

Organizitatea: heziketa prozesuan autoantolaketa, ardurakidetzeta eta kudeakidetzeta bermatzen du, pertsona guztiak lantaldean antolatuz (esperientzia bakoitzak erabakiko ditu zer lantalde eta horien asmo pedagogikoa zein den).

Txandaketa: ikastaroak bi denbora hauek txandakatuz antolatzea: elkarbizitza topaketa intentsiboak eta komunitatean/erakundearen ematen den denbora (esperientzia bakoitzean topaketa kopurua, tokia, eta iraupena aldatzen dira).

Beharrezko lanak: lan guztiak (eskulanak eta intelektualak, produktiboak eta erreproduktiboak) beharrezkoak dira prozesua mantentzeko eta, hortaz, kolektiboki antolatu behar dugu horiek txandaka egiteko.

Mistikoa eta ludiko kulturala: hizkuntza desberdinak erabiliz, honako hauen arteko lotura lantzen da: dimentsio politikoa eta dimentsio korporala, emozionala, kulturala, sinbolikoa, identitarioa, borroken historia, etab.

Giza harremanak eta balioak: gure harremanen oinarrian dauden balioak eta gure arteko harremanak landu beharreko heziketa dimentsioak dira.

Ikasketa eta ikerketa: eskuratutako ezagutzak (akademikoak, herrikoiak, feministak, etab.) artikulatzaren eta ikerketa lanarekin zehaztasunez lotzearen garrantzia, gure lurraldean gertatzen dena sakontasunez ulertu ahal izateko (esperientzia bakoitzak modu desberdin batean lantzen du hori).

Beraz, Baserritik Mundura proposamenean dimentsio horien antolaketa metodologikoa aldatzen da. Horiek, bada, testuinguruaren, lantaldeen eta heziketa prozesuaren beraren berezitasunen, premien eta aukeren arabekoak dira. Hala, antolaketa horrek koherentzia mantentzen du ikastaroa orientatzen duten printzipio filosofiko, antolatzaile eta pedagogikoekin.

Jarraian, Baserritik Mundura esperientzian txandaketa, organizitatea eta ikerketa prozesuak garatzeko eta lantzeko modua azalduko dugu. Gure ustez, hiru elementu metodologiko horiek lantzeko erabili dugun lurralde ikuspegiak berrikuntza interesgarriak dakartza eta, hortaz, horiek beste testuinguru batzuetako unibertsitate eremuan herri eta baserritar metodologia pedagogikoak erabiltzen dituzten ikastaroekin partekatu nahi ditugu. Baserritik Mundurak bezalaxe, beste prozesu horiek ere unibertsitatearen eta trantsizio agroekologikoa, elikadura burujabetza eta gizarte emantzipazioa bultzatzen duten gizarte eragileen errealitateen eta arazoan arteko loturak sendotu nahi dituzte.

4.3. Ikerketa-ekintza, txandaketa eta organizitatea: lurralde klabeen landutako hiru dimentsio pedagogiko

Proposamenaren diseinuan Euskal Herrian organizitatea, txandaketa eta ikerketa prozesuak garatzeko moduari buruz hausnartzean, KPPak hiru alderdi hauek hartu zituen kontuan: a) ikastaroa garatzeko estrategia, helburuak eta zehaztutako ikerketa ikuspegia; b) Euskal Herriko nekazaritza eta elikadura sektorearen egoera; c) antzeko ikastaroak egitean ENFF/MSTk identifikatutako muga metodologikoak²⁸.

4.3.1. Organizitatea

Organizitatearen bitartez, ikastaroa gidatzen duten zenbait eduki eta printzipio bizipenaren bidez lantzen dira. Gure testuinguruan hori ezohiko hitza denez, *organizitate* printzipioa lantzeko bestelako hitz batzuk erabili behar genituela identifikatu genuen. Beraz, ikastaroaren zabalkundearen eta PPPan, horren ordez, *prozesuaren subjektu eta kudeaketa kolektiboaren ikuspegia* erabiltzen dugu. Horrekin, honako ideia hau transmititu nahi dugu: "kolektiboa" prozesu pedagogikoaren subjektua eta subjektu hezitzaile nagusia dela. Hala, ezagutzak transmititzeko norabide bakarreko eskema tradizionala hautsi nahi dugu, non ikastaroaren ikasleek ezagutza eta ikastaroaren proposamen sortzaileen rola hartu beharrean, hartzzaile rola hartzen duten.

Halaber, proposamenak, antolaketa egitura kolektiboak txertatzen ditu bere diseinuan; heziketa prozesuan partaide guztiek inplikazio aktiboa, proposatzailea, parte-hartzailea eta ardurakidea izan dezaten. Horren ondorioz, prozesuaren koordinazioa kolektibo batek egiten du (KKPak), irakasleak kolektiboan antolatzen dira (bikote eta hirukote pedagogikoen bitartez) eta edizio bakoitzeko parte hartzaileek *Lurralde Nukleo*en eta *Lantaldeen* bitartez antolatzen dira.

Lurralde Nukleo (LN) esperientzien arteko topaketa, elkarrizketa eta hartu-eman sustatu nahi dute. Era berean, LNeen lurralde berekoak diren (bailara, eskualde, probintzia) eta trantsizio agroekologikoko eta elikadura burujabetza prozesuak sustatzen dituzten edo sustatu nahi dituzten ikasleen artean ikerketa kolektiboak sortzeko helburua dute.

Talde horien osaera anitza da, 3-7 kidek osatzen dituzte eta horiek faktore hauen arabera elkartzen dira: alde batetik, beren bizilekuen edo lantokiaren arteko **hurbiltasun** geografikoa eta, bestetik, genero, adin, jatorrizko kolektibo eta ekintza eremu **aniztasuna**. Horiek izango da erreferentziazko lantaldeak ikastaro osoan zehar.

Baserritik Mundura esperientzian honako **Lantalde** hauek zehaztu ditugu: koordinazioa, erregistro eta memoria, zaintza eta ludiko kulturala. Lantaldeek lau eginkizun horiek behar bezala garatzen direla bermatzeko helburua dute; izan ere, horiek dira, hain zuzen, prozesua ondo ibiltzeko beharrezkotzat hartutako eginkizunak. Hala, eginkizun horiek LN bakoitzaren barruan banatzen dira eta aldiro txandakatzen dira, LNko kide guztiek arduraren desberdinak izan ditzaten. Hala, garrantzi bera ematen zaie alderdi eta eginkizun arrazional-antolatzaileei eta harremaneko-emozionalei.

²⁸ UDeen eta KDeen arteko artikulazioa hobetzea; ikerketa prozesuak eta lurraldeetako eragileek identifikatutako premiak lotzea, ikerketa indibidual eta zatikatuko ekintzak gaindituz; eta KDeetan zehar, bide-laguntza politiko pedagogikoa hobetzea. Nekazari mugimendu ahulak dituzten testuinguruetan, ENFF/MSTren metodologia pedagogikoa erabiltzen duten ikastaroen muga metodologiko bezala identifikatutako alderdiak dira horiek. Berrikuntza horiek kontuan hartu genituen Baserritik Mundura ikastaroan organizitatea, txandaketa eta ikerketa prozesuak garatzeko modua hausnartzerakoan (Casado, 2018).

5. taula. Baserritik Mundura ikastaroan Lurralde Nukleoaren bitartez landutako printzipioak.

- Lurraldean teoria eta praktika lotzea, partaideen errealitatea ezagutza-ekoizpenaren oinarritzat hartuz. Horrek, bada, ikastaroaren edukiak gizarterako erabilgarriak izateko eta elikadura burujabetzaren aldeko eragile sozialek sustatutako prozesuak sendotzeko helburua du.
- Prozesu pedagogiko individual eta kolektiboak uztartzea, elkarrekin lan egitea/ikertzea sustatuz.
- Ikastaroaren une guztietan norberaren dimentsio desberdinetara (kognitiboa, ideologikoa, emozionala, espirituala, fisikoa, sormenekoak, harremanekoa, etab.) bideratutako heziketa integrala.
- Ikastaroaren eguneroko jardura jakinen ahalmen emantzipatzailea ulertzea eta kolektiboan dinamika zapaltzaileak erreproduzitzeari uzteko zailtasunaz jabetzea.
- Heziketa horretan pertsona guztiak subjektu aktibo izan daitezten sustatzea, ikasleen jarrera pasiboa sustatzen duen norabide bateko eskema tradizionala hautsiz. Horretarako, LNen bitartez, ikastaroarekiko eta LN bakoitzaren eginkizunen autoantolaketarekiko jarrera proposatzailea, parte-hartzailea eta ardurakidea sustatuko da.

Hortaz, ikasle bakoitza *Lurralde Nukleo* batean (ikasturte osorako) eta *Lantalde* batean (txandakakoa denez, etapa bakoitzean lantalde desberdin batean dago) antolatzen da. Horrela, beste LNetako kideekin kolektiboan eta autoantolatuz lan egitea, esperientziak trukitzea, eta elkarlana eta talde osoarekiko loturak sortzea sustatu nahi ditugu.

Halaber, ENFFren esperientziatik beste ariketa pedagogiko bat hartu dugu, Euskal Herriko testuingurura moldatu nahi duguna. Hori da, hain zuzen, heziketa prozesuaren parte bezala, LN bakoitzak eta talde osoak bere nortasuna lantzea eta izena erabakitzea, *dimentsio ludiko-kultural eta mistikoaren* bitartez.



Piztu da Hazia! Iturria: Baserritik Mundura artxiboa.

Baserritik Mundura esperientziaren sistematizazioa: elikadura burujabetzarako prestakuntza eta ikerketa


Hala, lehenengo edizioak Piztu da Hazial! izendatu zuen bere burua. Taldea 24 pertsonak²⁹ osatzen zuten eta 4 LN hauetan banatu ziren: Basurbe (7 kide), Artaburu banda (5 kide), Txindoki (8 kide) eta Mairubaratza (4 kide).



Bigarren edizioa Besardakada deitu zen. Taldea 22 ikaslek osatu zuten³⁰ eta 5 LN hauetan banatu ziren: Bazterrak (3 kide), Hifak (4 kide), Ezkutuko Haziak (6 kide), Sorginatxurrak (5 kide) eta Basordako Gonagorriak (4 kide). Aipagarria da bigarren edizioan bi talde emakumeek bakarrik osatu dituztela (Sorginatxurrak eta Basordako Gonagorriak). Ondoko irudian ikastaroko 9 LNak geografikoki nola kokatu diren ikusten da. Ikusten den bezala, LNek zabalera geografiko desberdinak izan dituzte.

²⁹ Lehenengo edizioa 27 partaiderekin hasi zen baina, lehenengo etapan, hiruk ikastaroa utzi zuten arrazoi pertsonalak zirela eta. Beraz, ikastaroa 24 pertsonak amaitu zuten (11 emakume eta 13 gizon), horietako gehienak 25 eta 40 urte artekoak.

³⁰ Bigarren edizioa 26 partaiderekin hasi zen baina, lehenengo etapan, lauk ikastaroa utzi zuten arrazoi pertsonalak zirela eta. Beraz, ikastaroa 22 pertsonak amaitu zuten (7 gizon eta 15 emakume), horietako gehienak 25 eta 40 urte artekoak.



Baserritik Mundurako parte-hartzaileen kokapen geografikoa, Lurralde Nukleoka.
Iturria: Egilea bera.

Netan kolektiboki lan egiteak adostasunak lortzea eskatzen du, bai ikastaroaren antolakuntza dinamikagatik beragatik, bai lurraldeetako ikerketak garatu ahal izateko. Hala ere, LN bakoitzaren barruan aniztasuna autogestionatzea ez da batere erraza eta tentsio, liskar, gatazka eta eztabaida asko sortzen dira ikasturtean zehar. Horiek, bada, bide-laguntza pedagogikoa behar dute, kolektiboak egoera horiek kritikoki irakurri ahal izateko eta, horren bitartez, eraldatzeko eta ikasteko aukera bezala baliatu ahal izateko. Hori dela eta, LN bakoitzak prozesua laguntzeko pertsona bat edo bi izan zituen.

Lehenengo edizioan, bada, bide-laguntza hori KPPak eman zuen. Bigarren edizioan, aldiz, bide-laguntza hori indartzeko beharra identifikatu genuen eta LNei lagun egiteko talde bat sortzea erabaki genuen. Horretan, lehen edizioko zenbait partaide sartu genituen.

4.3.2. Txandaketa³¹

MSTaren hezkuntza esperientzian inspiratuta, Baserritik Munduran txandaketa ikastaroa antolatzeko modu bat da, non bi hezkuntza denbora eta eremu txandakatzen diren. Horren arabera, ikastaroa "etapatan" antolatzen eta garatzen da. Etapa bakoitzean Unibertsitate Denborak (4 eguneko prestakuntza eta elkarbizitza topaketa intentsiboak Euskal Herriko landa eremu desberdinetan) eta Komunitate Denborak (hainbat hilabeteko iraupena dutenak) txandakatzen dira.

³¹ Eskolatzea eta lana antolatzearen, denbora eta eremu txandaketa aplikatu zuten hezkuntza esperientzien metaketako eta esperimentazio kolektiboko prozesu bati erantzuten dio txandaketaren pedagogia edo txandaketa sistema formulazioak. Horretan sakontzeko ikus: Ribeiro, 2008. Lan horretan Frantziako, Italiako eta Afrikako zenbait esperientzia aztertzen dira, baita Brasilgo CFRen (Casa Familia Rurais) eta EFAen (Escola Familia Camponesa) esperientziak ere. Nolanahi ere, esperientzia horiek eta MSTk garatutako txandaketaren kontzepzioa eta praktika (gu inspiratu gaituena) berezi behar ditugu.

UDak bizikidetzeta, ikasketa eta lan intentsiboko momentuak dira. Egun bakoitza hainbat *hezkuntza denboratan* banatzen da³². Hala, proposamenak planteatzen dituen dimentsio desberdinak lantzeko denbora desberdinak izatea bermatzen da eta parte-hartzaileen autoantolaketa sustatzen da. Horrek parte-hartzaileak erantzukizunez interes desberdinak kudeatzera, lehentasuna ezartzera eta ardura desberdinak hartzera eramaten ditu.



Piztu da Hazia! edizioko egun on denbora bateko irudiak. Iturria: Baserritik Mundura artxiboa.

Komunitate Denboretan (KD) irakasgaien eduki desberdinak modu autoantolatuan lantze aldera, lana kolektiboak proposatzen dira. Aldi berean, ikasleek kolektiboki garatzen dituzte ikerketa lanak ere.

Nolabait, txandaketa txarto ulertzeko arriskua dago; hau da, aurrez zehaztutako elementu bezala, prozesu pedagogikoaren jarduera mota desberdinak garatzeko momentu desberdinak (UD-KD) besterik ezartzen ez dituen. Alabaina, ulertzeko modu hori oso azalekoa da; izan ere, ikastaro erdipresentzial baten formatuarekin eta logikarekin parekatzen du txandaketa, eta inola ere ez da hori. Aitzitik, txandaketa dinamiko da eta dinamismo hori ez da edizio bakoitzak UD eta KD iraupen eta kopuru desberdinak izatearen, edo leku berean edo lurraldetik mugituz egitearen ondorioa. Horrez gain, txandaketak heziketa prozesua malgua, konplexua eta edizio bakoitzean bakarra izatea ahalbidetzen du. Izan ere, prozesua hainbat baldintzaren araberakoa izango da, eta prozesua laguntzen duen taldea agertzen diren ikasketa aukerak baliatzeko gaitasunaren menpe izango da.

Beraz, txandaketa ulertzeko modu horri esker prozesua eraikitzen ari da beti. Etapa desberdinetan, hobetzeko proposamenak egiteko, proposamena doitzeko edo taldeak berak proposatzen duen gai baten lanketa pedagogikoa pentsatzeko aukera ematen da. Hala, edizio bietan zehar, doikuntzak eta hobekuntzak egin ahal izan ditugu eta lehenengo edizioan ikasitakoa bigarren edizioan erabili ahal izan dugu³³. Ondoko taulak bigarren edizioaren datak eta lekuak eta 11 irakasgaien etapa desberdinak biltzen ditu³⁴.

32 Edizio bietan hezkuntza denborak honako hauek izan ziren: egun on denbora, mintegi integratzaile denbora (UD bakoitzaren lehen eta azken egunean), organizitate denbora (LNak, lantaldeak), gela denbora eta eztabaida/tertulia/bisita/jarduera ludikoko denbora (hainbat formatu eta momentu).

33 Beste etapa bat gehitu; UD eta KDetan mintegi irekiak txertatu; etapa desberdinen artean irakasgaiak nola banatzen diren birpentsatu; beste irakasgai bat gehitu; etapa desberdinen artean irakasgaien mailakatzea aldatu; nekazaritza edukiak sendotzearen eta ikastaroan nekazaritza eta elikadura esperientziak eta pertsonak inplikatzearren, UD eta KDetan, mintegi irekiak txertatu; etab.

34 Bigarren edizioan, ikastaroaren programak 11 irakasgai zituen, honen arabera antolatuta: 750 orduko 5 heziketa-etapa (ordu horiek UDen eta KDen artean banatuz) eta beste 250 ordu ikerketa prozesua garatzeko.

6. taula. Baserritik Mundura ikastaroaren bigarren edizioaren etapak eta irakasgaiak	
I. Unibertsitate Denbora Bernedo (Araba) 2017ko urriaren 19-22an	I. ETAPA. Zertan ari gara sartzen? Ikastaroaren oinarri politiko pedagogikoak adosten ditugu eta gure lurraldearen diagnostikoari ekiten diogu. 1. irakasgaia: Zibilizazio krisia: Modernitate kapitalistaren dinamikak eta eragileak. 2. irakasgaia: Nekazaritza industria eredu globalizatuaren bilakaera historikoa. Zeharkako irakasgaia: Elikadura Burujabetzaren aldeko herri hezkuntza eta ikerketa-ekintza. Mintegi irekia Eskuernagan (UDan), mintegi irekia Leitzan (KDan).
I. Komunitate Denbora	
II. Unibertsitate Denbora Ondarroa (Bizkaia) 2018ko urtarrilaren 18-21ean	II. ETAPA. Zer dugu? Gure nekazaritzaren egoeraren azterketa kritikoa, gure proiektua zehazten eta gure diagnostikoa kokatzen hasten gara. 3. irakasgaia: Baserria, nekazaritza eta elikadura Euskal Herrian. 4. irakasgaia: Feminismoa elikadura burujabetzan: Feminismo baserritarra. 5. irakasgaia: Herri komunikazioa eta Elikadura Burujabetza. Zeharkako irakasgaia: Elikadura burujabetzaren aldeko herri hezkuntza eta ikerketa-ekintza. Mintegi irekia Ondarroan (UDan) eta mintegia Igorren (KDan).
II. Komunitate Denbora	
III. Unibertsitate Denbora Ainhize (Benafarroa) 2018ko apirilaren 19-22an	III. ETAPA Zer deritzogu? Zer egin dezakegu? Ikerketa proiektua zehaztu eta horren protagonistekin partekatu ostean, lanari ekiten diogu. 6. irakasgaia: Elikadura Burujabetzaren agenda emantzipatzailea. 7. irakasgaia: Eredu agroekologikoa, elikadura burujabetzaren premisa. Zeharkako irakasgaia: Elikadura burujabetzaren aldeko herri hezkuntza eta ikerketa-ekintza. Mintegi irekia Ainhizen (UDan) eta mintegia Karrantzan (KDan).
III. Komunitate Denbora	
VI. Unibertsitate Denbora Amaiur (Nafarroa) 2018ko ekainaren 28tik uztailaren 1era	IV. ETAPA. Zer eta nortzuk egiten dugu? Ekimen zehatzak finkatzea eta martxan jartzea. 8. irakasgaia: Elikadura burujabetza eta ekonomia solidarioa: erronkak eta aukerak. 9. irakasgaia: Elikadura burujabetzarako politika publikoak. 10: Elikadura burujabetza eta agroekologia: praktika berehala. Zeharkako irakasgaia: Elikadura burujabetzaren aldeko herri hezkuntza eta ikerketa-ekintza. Mintegi irekia Elizondon (UDan) eta Esperientziak trukatzeko jardunaldiak Sarrikon (KDan).
IV. Komunitate Denbora	
V. Unibertsitate Denbora Sarriko UPV – EHU 2018ko azaroaren 8-9an Beizama (Gipuzkoa) 2018ko azaroaren 10-11n	Ikerketa prozesuak jendaurrean aurkezteko unibertsitate jardunaldiak. Bizi izandako heziketa prozesuaren ebaluazio/sistematizazio kolektiboa

4.3.3. Ikerketa-ekintza ikuspegia

Ikastaroa txandaketa sistemaren bitartez eta lurralderi lotutako organizitate batekin (LNen bitartez) garatzeak, bada, heziketa prozesua, edukien banaketa eta ikerketen garapena aztertzeko aukera eman zuen. Euskal Herriko unibertsitate eremuko graduondoko ikastaroetan ez da batere ohikoa ikerketa eta ezagutza sortzeko ikuspegi.

"Ikastaro honetan Txandakako Sistema erabiltzen dugu, taldeko ikerketa-ariketak egiteko, gogoeta-ekintzarako espazioak eta denborak txandakatu. Proposamena honako hau da: Lurralde Nukleoek (LN), Unibertsitate Denboretan (UD), Komunitate Denboretan (KD) kolektiboki definitzen eta garatzen diren ikerketa-prozesuak planifikatzea, haien gaineko gogoeta kritikoa egitea eta ebaluatzea. Azpimarratu nahi dugu ikastaroaren ardatz nagusia lurraldeak direla, eta beraz, KDak dira ikastaroaren funtsezko espazio/denbora" (*PPP Baserritik Mundura*, 2017:10).


7. taula. Baserritik Mundura esperientziaren ikerketa ikuspegiaren ezaugarriak

- Ikastaroko ikerketa prozesuen eta proposamena bultzatu duten nekazari erakundeek (ENHE-Bizkaiak eta Etxaldeak) identifikatutako ikerketa premien arteko lotura sustatzen du. Hala, lehenetsuneko 11 ardatz eskaintzen ditu³⁵.
- Ikerketa metodologia horizontalak, parte hartzeak eta kolaboratiboak txertatzen ditu, subjektuen eta ezagutza sortzeko moduen aniztasuna aintzat hartzea sustatuz. Horren helburua jakintza desberdinen arteko elkarriketa sortzea da (baserritarrak, feministak, herrikoiak, teorikoak, praktikoak, etab.).
- Ezagutza kolektiboa sortzea eta ikerketa kolektiboak garatzea sustatzen du.
- Emaidak lortzea barik prozesuak sortzea lehenesten du.
- Agroekologia ikuspegiarekin bat datozen ikerketa-ekintza proposamenak sortu nahi ditu. Horretarako, ohiko ikerketa teknikak eta tresnak (eztabaida taldeak, elkarriketak, bizi-istorioak, mapaketak, etab.) eta parte hartze tresnak (sozio-analisia, tailerrak, esperientzien sistematizazioa, etab.) uztartzen ditu. Hala, erreferentzia gisa hartzen ditu Parte Hartzeko Ikerketa Ekintza (PIE), nekazaritza ikasketa kritikoa, herri hezkuntza, nekazaritik nekazarira metodora, etab.

Ikastaroa diseinatzean, ikerketa ikuspegi hori elkarrekin zehazteaz gain, ikerketa irakasgaiak zeharkakoa izan behar zuela eta herri hezkuntzako eta ikerketa-ekintzako edukiak eta metodologiak txertatu behar zituela erabaki genuen. Era berean, bere gida didaktikoak eta saioak ikastaroaren antolaketa metodologiarekin eta proposamenarekin bat eraikitzea beharrezkoa zela identifikatu genuen. Horrek guztiak, honako hau eskatu du: zeharkako irakasgaiaren saioak Mintegi Integratzaileekin batera (UDren lehenengo eta azken egunak) planifikatzea eta garatzea; gida didaktiko bat idaztea; eta ikastaroaren edizio bien etapa desberdinetara moldatutako ikerketa-ekintza eskema metodologiko bat sortzea, LNetan garatuko ziren ikerketa prozesuak orientatzeko asmoz.

³⁵ Lehenesten diren 11 ikerketa ardatzei buruzko informazio gehiago hemen: <http://pdf2.hegoa.efaber.net/entry/content/1685/infoweb_Curso_Soberania_Alimentaria_Hegoa-ETXALDE-EHNEBiz_cast.pdf>.

Ikerketa-ekintza: prozesuak eta produktuak



Baserriik Mundura ikastaroaren erreferentziazko eskema metodologikoa³⁶. Iturria: Baserriik Mundura 2017/18 ikasturteko zeharkako irakasgaiaren gida didaktikoa.

³⁶ Eskema horrek ikastaroaren etapa desberdinetara moldatutako Ikerketa-Ekintza prozesu oso baten eredu ideala irudikatzen du. Horrek, baldintza egokiak ematen direnean (lantaldearen esperientzia, denbora, balliabideak, etab), ikerketa-ekintza prozesu oso baten filosofia eta garapena azaldu eta ezagutu nahi ditu heziketa ikuspegi batetik.

Horri esker, ikerketa prozesuak ez dira ikasleen ikerketa interesetan bakarrik oinarritu. Aitzitik, esploratzeko, aztertze eta esku hartze aukera izan da, LNEk eta lurraldeko eragileek identifikatutako arazoak eta premiak heziketa prozesuaren eta horretan sortzen den ezagutzaren abiapuntu eta helmuga gisa hartuz. Edizio bietan honako hau azpimarratu zen:

"Lurralde Nukleoek ikerketa-prozesu propioa definitzeko malgutasuna dute. Horrela, LN bakoitzak ikerketa-ardatz bat edo batzuk lehenetsi ahal izango ditu, ikerketa-ekintza prozesu bateko fase guztiak egin nahi dituzten edo esku hartzera iritsi gabe prozesuko faseren bat lehenetsi edo sakondu nahi duten erabaki ahal izango dute." (PPP Baserritik Mundura 2016: 12-13).

Baserritik Mundura ikastaroan garatutako ikerketa guztiak kolektiboak izan dira eta Euskal Herriko nekazarien mugimenduak ikerketa-premiazat hartutako gaiak landu dituzte, lehenetsitako ikerketa ardatz bat edo batzuk aztertuz.

8. taula. Baserritik Mundura ikastaroko LNEk egindako ikerketen izenburuak ³⁷	
Baserritik Mundura 2016. Piztu da Hazia!	
BASURBE	"Tokiko produktu agroekologikoa ostalaritzan, denda txikietan, plazan eta zuzenean merkaturatzeko aukerak eta mugak", Bizkaian eta Nafarroan.
ARTABURU BANDA	"Elikadura burujabetzari buruzko eztabaida hezkuntza formalean eta ez formalean txertatzea", Bilboko San Frantzisko auzoan.
MAIRUBARATZA	"Elikadurak kolektiboen osasun indibidual eta globalean duen garrantzia", hain zuzen, Debako Gaztetxean eta Ooretako Txosna Batzordean.
TXINDOKI	"Elikagaien kontsumo arduratsuen gaia familiei, irakasleei eta ikasleei helaraztea", hain zuzen, Ordizioako ikastolan Jolas eta Ekin programaren bitartez.
Baserritik Mundura 2017/2018. Besardakada	
SORGINATXURRAK	"Gure ahizta, ama eta amamen atxur arrastotik... baserrien bizi berrirako haziak".
ESKUTUKO HAZIAK	"Zer da Basoa? Baso agroekologiko baterako proposamena eta esku-hartze sozialerako proposamen pedagogikoa".
BASORDAKO GONAGORRIAK	"Elikadura burujabetzarako ekarpena: Lemoizko azken 100 urteetako arrantzari buruzko kontaketa".
BAZTERRAK	"Ekoizpena eta kontsumoa Pirinioetan. Elikadura Burujabetzan oinarritutako ikuspegi baterako ekarpenak".
HIFAK	"Sagarrik Aiaraldean".

Iturria: Egilea bera.

³⁷ Egindako ikerketa lanak honako esteka honetan daude eskuragarri:
<https://drive.google.com/open?id=0B4bYaKYaUIW5b0h1WWtJSWtEQ00>.

Edizio bakoitzean, ikasleek beren bederatzi ikerketa lanak unibertsitatean aurkeztu eta ezagutzera eman zituzten, unibertsitate jardunaldien bitartez³⁸. Bederatzi aurkezpen horiek ez ziren ikerketen emaitzak azaltzera mugatu; aitzitik, egileek ikerketa prozesuaren nondik norakoak eta horien emaitzak azaltzea lortu zuten, ikerketan zehar eragileekin erabilitako herri hezkuntzako metodologiak txertatuz, jarduera mistikoak barne. Hala, aurkezpenean LN bakoitzean eraturako identitatea islatu zuten. KPParen rola, bada, laguntza logistikoa ematearena izan zen eta ikerketa prozesu kolektiboak sozializatzeko modua LNek berek erabaki zuten. Zenbait kasutan, taldeek prozesuaren partaide izandako eragileek ere aurkezpenean parte hartzea lortu zuten.

38 Esteka honetan edizio bietako unibertsitate jardunaldiei buruzko zenbait material daude eskuragarri: <https://drive.google.com/open?id=1yAaaXRlcAle8ocqApCsek7_Nn7YnJMN4>.

5. Egindako edizio bietan identifikatutako ikaspenak eta gakoak

Atal honetan aipatzen diren ikaspenak eta gakoak identifikatzeko, argitalpen honen hasieran zehaztutako iturriak aztertu ditugu³⁹. Hala, alde batetik, ikuspegi aniztasuna baita hartzen saiatu gara, KPP, bikote pedagogiko eta ikasle bezala edizio bietan parte hartu duten pertsonen hausnarketak eta ikuspegiak barne. Beste alde batetik, begirada idealizatzailea edo autokonplazentziazkoa saihestu nahi izan dugu eta, ondorioz, alderdi positiboekin, arrakastekin eta funtzionatu duten gauzeekin lotutako ikaspenez gain; mugak eta erronkak sortzen dituzten ahulguneak, kontraesanak eta tentsioak ere identifikatu nahi izan ditugu.

Identifikatutako ikaspenak eta gakoak zortzi ataletan banatu ditugu. Horiek aztertutako dokumentazioan gehien azpimarratzen eta errepikatzen diren alderdiak biltzen dituzte. Honako hauek dira atalak: a) Proposamena orokorra eta herri hezkuntzako ikuspegia; b) txandaketa; c) ikasleen organizitatea (LNak eta Lantaldeak); d) dimentsio mistikoa eta ludiko-kulturala; e) eduki teorikoak, irakasgaiak eta irakasle taldea; f) ikuspegi feministaren zeharkakotasuna; g) hizkuntza aniztasuna eta euskararen erabilera; h) prozesuaren bide-laguntza politiko pedagogikoa eta KPPa.

5.1. Proposamen pedagogikoari eta horrek duen herri hezkuntza ikuspegiari lotutako ikaspenak eta gakoak

Identifikatutako alde positiboak/arrakastak

Proposamenak elikadura burujabetzaren alde lan egiten duten hainbat eragile/ekimen/proiektu aintzat hartzeko eta bistaratzeko erabilgarria dela erakutsi du; izan ere, horiek harremanean jarri ditu eta ikastaroaz haragoko sinergiak eta loturak sortu ditu. Zentzu horretan, ikastaroaren organizitatea bera, mintegi irekiak, esperientziak bisitatzea, unibertsitate jardunaldiak edo LNek garatutako bederatzi ikerketa-ekintza prozesuak funtsezkoak dira.

"Zalantzan jarri da ea ikastaro honek mugimendu baserritarrari laguntzen deusan edo ez; hori argi-argi ez ikusteak zalantzan jartzen dauela istorio honen segida. Neu, nekazari bezala, afirmatu behar dot helburu hori niretzako erabat konplitu dala hainbat aspektutan. Alde batetik, sektorean dabiltzan beste pertsona batzuekin endredatea ahalbidetu deusta; lehen sektoretik oso gertu dagoen jendearekin be bai etorkizunera begirako proiektuak irekita dagoz" (BM-Besardakada edizioko partaidea).

Era berean, honako hau azpimarratzen da: proposamenak elikadura burujabetzaren eztabaida mugitzen, nekazarien eta elikadura burujabetzaren aldeko mugimendua indartzen eta Euskal Herriko nekazaritza eta elikadura sektorearen egoerari buruzko kontzientzia handiagoa sortzen lagundu duela, ikastaroaren barrura eta kanpora begira.

³⁹ Ikus 2. atala: Nola garatu da sistematizazio prozesua?

"Epe luzera begira eta ikuspegi estrategiko batekin, ikastaro honek ekarpen handia egiten die herri mugimenduari eta elikadura burujabetzaren aldeko mugimenduari, nekazarien mugimenduz harago" (BM-Besardakada edizioko partaidea).

Hainbat hausnarketan aipatzen da ikastaroak "aire berri bat" dakarrela eta sektore eragileei "ez daudela bakarrik" sentiarazten diela, "zubiak eraikitzen direla". Alderdi horiek oso positiboak dira, batez ere, Euskal Herriko nekazaritza eta elikadura sektorearen zaharkitze, ahultasun eta zatiketa egoera kontuan hartzen badugu.

"Prekarietateaz eta baserritarren eta munduko nekazarien egoeraz hitz egiten da, baina hainbeste jende ideia baten inguruan eta borroka baten alde buruari bueltaka ibiltzeak babesa eta indarra ematen dizu. Gainontzekoak ere aitzurra hartzen ari izatea oso garrantzitsua da" (BM-Piztu da Hazia! edizioko partaidea).

Herri hezkuntzaren ikuspegia partaideen heterogeneotasunarekin (profilak, erakundeak, esperientziak, adinak) uztartzeak asko aberasten du prozesu pedagogikoa. Norberaren praktikei eta inguruko esperientziei buruzko hausnarketa kritiko eta kokatu batetik abiatzeak eta taldearen aniztasuna harremanean jartzeak, beraz, partaideek ezagutzaren subjektu bezala metodologikoki aintzat hartuak sentitzea ahalbidetzen du.

"Taldearen aniztasunari esker gaiak ikuspegi desberdinetatik ikusi ahal izan ditugu: ekoizpenetik, nutrizio ikuspegitik, ikuspegi feministatik... eta ikuspegi aniztasun hori oso interesgarria iruditu zait. Oso eskertuta nago" (BM-Piztu da Hazia! edizioko partaidea).

Bestalde, ikasketa bizipenezkoa da eta, horren ondorioz, ikasketak intentsitate gehiago du; jabetzeko beste prozesu bat, alegia. Eremu eta betekizun guztiak asmo politiko eta pedagogiko batez elkarrekin antolatzeak hezkuntza giro integral bat sustatzen du. Giro hori harremanak izateko, antolatzeak, lan egiteko, lanak eta ardurak banatzeko, norbere burua eta bestak zaintzeko eta dibertitzeko moduek osatzen dute. Horrek guztiak konfiantza eta ikasketa kolektiboa sortzen du; taldearen konplizitate eta kohesio maila handia. Horren eraginez, alde positiboak, hau da, ondo dabiltzanak partekatzen dira baina zalantzak, zailtasuna edo beldurrak ere bai.



Piztu da Hazia II. UDko mistika batean. Iturria: Baserritik Mundura artxiboa.

"Nik ikastaroan izan dudan bizipena lau hitzetan laburbiltzen da: sentitu, pentsatu, antolatu eta ekin. Aurreku kolektibo bat" (BM-Piztu da Hazia! edizioko partaidea).

Ikastaroak, nolabait, eraldaketak bizipenezko ikuspegi integral batetik landu behar direla azpimarratzen du eta hori positiboki baloratzen da. Era berean, positibotzat jotzen da horren edukiek eta metodologiak berrikuspen eta eztabaidatze kritikoa sustatzea ere, ez nekazaritza eta elikadura sektorearena bakarrik, baizik eta kultura politikoarena eta antolatzeke, erabakitzeke, harremanak izateko eta desberdintasunak eta gatazkak kudeatzeko moduen ere.

"Prestakuntzek, beraz, lehen sektoreko langileek beldurrik gabe elkartzea eta beldurrik gabe kolektibizatzea ahalbidetzen dute, eta gainera, korapiloak, zailtasunak eta indarrak mahaigaineratzen laguntzen diguten tresnak eskaintzen dizkigute" (BM-Piztu da Hazia! edizioko partaidea).

Positibotzat eta garrantzitsutzat jotzen da proposamenak gaitasun pertsonal eta kolektiboak lantzea eta indartzea, asimetriei aurre egiteko eta antolatzeke eremuak eta prozesu emantzipatzaileak eraikitzen joateko. Ikastaroaren balioen eta printzipioen *praxiak* aldatu nahi dugun hori nola erreproduzitzen dugun ulertzen laguntzen digu, sortzen diren inertziak eta zailtasunak identifikatuz, egunerokoa politizatuz eta horretatik ikasiz. Proposamenak "barruak astintzen ditu" "konfort guneetatik irtetera behartzen zaitu" eta politizatzen du; izan ere, bizitzaren edozein eremutan eguneroko praktiken bitartez eraldatzeko eta, aldi berean, gure burua eraldatzeko aukera dugula sentiarazten digu.

"Pertsona hobea naiz, Baserritik Mundurari esker eta ez "en abstracto" baizik eta zuetako bakoitzari esker be bai. [...] Erreafirmatu nau. Igual borrokarako indarrak gastatzen hasita neuzkan garai batean harrapatu ninduen honek eta [...] oso indartsu nago. Hemen sortzen dan energia kolektibo hori ez da magia; da lana, antolaketa, maitasuna... [...] Ni ateratzen naiz gogoekin nire lurraldean, nire familian baita be, lagun artean, ekimenetan gogo hori bolkatzeko eta kontagiatzeko. Ez daukat hitz bat hori dena sartzeko" (BM-Besardakada edizioko partaidea).

Askotan, Euskal Herrian horrelako unibertsitate prestakuntzak egin behar direla azpimarratzen da, herri hezkuntza eta baserritar ezagutzan oinarritutako metodologiak dituztenak. Hala, landutako gaietan sakontzeaz gain, ikastaroaren metodologiatik ere ikasten da eta elikadura eredu hegemonikoak indartzen duen hezkuntza, ikerketa eta ezagutza eraikitzen duen eredu zalantzan jartzen da.



Besardakadako III. Udaren momentu bat. Iturria: Baserritik Mundura artxiboa.

"Guztiak ibili gara, modu batean edo bestean, ikasketa prozesuetan murgilduta eta, azken finean, beti ikusi dugun eredu entzutekoa eta idaztekoa da. Honetan, ordea, gu, ikasleak, izan gara protagonistak eta prozesuaren sortzaileak" (BM-Piztu da Hazia! edizioko partaidea, Basurbe LNNari egindako elkarrizketan).

Proposamen orokorraren eta herri hezkuntzaren ikuspegiaren muga edo hobetu beharreko elementu bezala identifikatutako alderdiak

Taldea heterogeneoa bada ere, kidesan handia dago eta, kritika eta eztabaida dagoen arren, kanpoko munduaren aurrean "burbuila" batean egoteko sentazioa sortzen da. Zentzu horretan, erronka bezala identifikatzen da ikastaroan bizi izandakoari kanpoan segida eman ahal izatea, bizipen hori partekatzeko eta ikasitakoa militantzia, lan edo familia eremuetan aplikatzeko. Ikasitakoa aplikatzea ez da erraza eta, normalean, oso finkatuta dauden hainbat logika eta inertzia zalantzan jartzea eskatzen du, horrek sor dezakeen frustrazioarekin.

"Nola erreproduzituko dut nik hau, egunerokoan aldaketak sortzeko eta berriz ere *off* botoia ez sakatzeko eta joera nagusiari ez jarraitzeko? Hori da erronka nagusia niretzat; nola gauzatu, hemendik kanpo, benetan sinesten ditudan balio horiek" (Participante BM-Piztu da Hazia!).



Besardakada edizioko II. UDko Egun on denbora Ondarroan. Iturria: Baserritik Mundura artxiboa.

Proposamenaren zabalkundeari dagokionez, hobetu beharreko hainbat gauza identifikatzen dira: lehentasunezko kolektibo eta profilengana heltzeko lana hobetzea, modu hurbilagoak eta sormenezkoagoak txertatzea, zabalkunderako denbora gehiago ematea eta pertsona gehiagok horretan lan egitea; zabalkundearen proposamenak eskatzen duen dedikazioa eta konpromiso maila hobeto adieraztea. Bigarren edizioan 30 pertsonak izena ematea espero genuen baina, azkenean, 26k besterik ez zuten izena eman eta, horietatik lauk atzera egin zuten ikastaroaren lehenengo etapan. Batzuen ustez, espero genuena baino pertsona gutxiagok izena eman izana zabalkunde prozesuaren ondorio izan zen; beste batzuen ustez, ordea, proposamenak eskatzen duen inplikazio mailaren ondorio izan zen.

Halaber, PIEaren planteamendua birpentsatu eta ikastaroaren denborara egokitzen diren prozesu errazagoak planteatu beharra dago (parte hartzeko diagnostikoak, mapaketak, esperientziak sistematizatzea, etab.). Ikerketa-ekintza prozesua behar bezala egiteko adina denbora ez dagoela identifikatzen da. PIEaren helburuak (prestakuntzakoak eta eraginekoak) lortzeko baldintza horiek ez dira ematen ez ikerketa taldeetan, ez behar den bide-laguntza zehatz eta kualifikatua egiteko, ez prozesuen iraupenean.

Gainera, proposatutako ikerketa ardatzak oso orokorrak direla ere adierazi izan da. Ikasleek honako hau proposatzen dute: nekazarien mugimenduek, eskualde mailan, ikerketa premia zehatzagoak adieraztea. Horrela, ikastaroak ikerketa premia horiei erantzutea errazagoa izango litzatekeela baloratzen dute.

"Eskualdeetan identifikatutako ikerketa premia zehatzagoetatik abiatu eta eskualdeko nekazarien mugimenduarekin harreman estuagoa izan" (BM-Besardakada edizioko partaidea).

5.2. Txandaketari lotutako ikaspenak eta gakoak

Identifikatutako alde positiboak/arrakastak

Balorazioen arabera, txandaketa funtsezkoa eta beharrezkoa da hausnartzeko eta ikastaroaren edukiak eta bizipenak asimilatzeke eta barneratzeko eta, hala, prestakuntza eta bizitza (familia, lana, militantzia) uztartzeko. Gainera, UDek eta KDek eskaintzen dituzten ikaspen desberdinen arteko osagarritasuna azpimarratzen dute.

"Hanka bat lurraldean eta bestea hausnarketan izatea ahalbidetzen du, teoriak eta praktikak elkar elikatzearren. Horrek prestakuntza aberasten du, eremu teoriotik ateratzen gaitu eta errealtatera eta praktikara eramaten gaitu; prozesuen zailtasunak eta edertasunak jartzen dizkigu aurrez aurre. Oso baliagarria da edukiak gure kabuz eta autoantolatutako modu batean lantzeko denbora ematea" (Participantes BM-Besardakada)

Halaber, txandaketa nekazarien mugimenduak planteatutako arazoei eta beharrei erantzuteko funtsezkoa dela baloratzen da; izan ere, baserritarrek parte hartzea eta bertan egon ahal izatea errazten du eta lurraldeko nekazarien mugimenduari entzuten eta ikerketa premiak identifikatzen laguntzen du.

"Txandaketak, batez ere, baserritarrek ikastaroan parte hartzea errazten du; txandaketari esker, nekazarien mugimenduarekin izateko eta horri entzuteko aukera gehiago izan dugu; ikastaroaren proposamenak eragile jakinak bilatzera eramaten gaitu; aliatu berriak ezagutzen eta erakartzen laguntzen du" (BM-Piztu da Hazia! edizioko partaidea).

Lehenengo edizioaren ondoren, KDetan egindako mintegien funtzioa eta edukia birpentsatzea garrantzitsua zela ikusi genuen. Beraz, bigarren edizioan KDan egindako mintegi guztietan barrura begirako parte bat (LN bakoitzaren ikerketetan eta prozesuetan egindako aurrerapenak partekatzeke) eta ikastaroaren gaiak lantzeko parte ireki bat egon ziren (nekazaritza sektoreko esperientziek eta kideek parte hartzeko hitzaldi eta mahai-inguru irekiak). Hori hobekuntza bat dela uste dugu, proposamena "nekazariago" bihurtzen lagundu duelako.



Paseoa Karrantzan zenbait nekazaritza eragilerekin. Iturria: Baserritik Mundura artxiboa.



Nekazaritza sindikalismoari buruzko mintegi irekia Leitzan. Iturria: Baserritik Mundura artxiboa.

Ikastaroa lurraldetik ibiliz eta landutako gaiekin lotutako esperientziak dituzten zenbait landa eremutan egiten denez, esperientzia horiek lekuan bertan ezagutzeko aukera dago. Bigarren edizioan zonalde aniztasun handiagoa izan dugu eta esperientzia gehiago bisitatu/ezagutu/entzun ahal izan ditugu, nekazaritza sektoreko eragileen parte hartze handiagoarekin ere. Horrek guztiak koherentzia eta integritasun handiagoa ematen dio proposamenari eta horrek balio handia du. Aipatzen denez, hori EHNE-Bizkaia sindikatuaren kontaktu eta aliantzei esker izan da.



Iparraldeko Idoki baserriari bisita. Iturria: Baserritik Mundura artxiboa.

"Gehien gustatu zaidana zera izan da, ikastaroan Euskal Herri osoko jendeak hartu duela parte eta esperientziak partekatu ditugula. Gure artean ezagutzeaz gain, gure inguruko esperientzia baserriar asko ezagutu ditugu" (BM-Piztu da Hazia! edizioko partaideak).

Gainera, ikastaroko zenbait jardura unibertsitate eremuan ospatu dira proposamenaren ikuspegiarekin eta metodologiarekin koherentzia mantenduz. Izan ere, horiek heziketa prozesua eta LNeK garatutako gaiak eta ikerketak unibertsitatean bistartzeko balio izan dute. Orokorrean, positibotzat jotzen dira edizio bien azken etapan ospatutako unibertsitate jardunaldiak.



Esperientziak partekatzeko jardunaldiak, lehenengo edizioan Sarrikon ospatutakoak. Iturria: Baserritik Mundura artxiboa.

Prozesuan Sustriak edo Goiabe bezalako proiektu kolektiboak txertatu dira eta hori aintzat hartu izan da ikastaroa txandaketa sistemaren bitartez garatzean, elikaduraren koherentzia bermatzeko balio izan duelako.



Sustriak elkarbitza momentu batean. Iturria: Baserritik Mundura artxiboa.



Hifak taldearen aurkezpena Aiaraldeko eragile batekin, dolarea eta guzti. Iturria: Baserritik Mundura artxiboa.

Metodologiak, bada, ikastaroan sortzen diren ikerketak kolektiboak (LN), esku-hartze sozialaren eta lurraldeko eragileekiko lankidetzaren klabean garatzea sustatzen du. Hori oso modu positiboan baloratzen da unibertsitate eremuan ez baita oso ohikoa.



Txindokik egindako aurkezpenean Jakintza ikastolak (Ordizia) parte hartu zuen. Iturria: Baserritik Mundura artxiboa.

Edizio bietan LNEk egindako bederatzai ikerketak kolektiboak izan dira eta ikastetxeen, baserritarren, beste erakunde batzuen eta zenbait gizarte eta nekazaritza mugimenduen, kontsumo taldeen eta abarren parte hartzea lortu dute, neurri handiagoan edo txikiagoan.

Beste alde batetik, arrakastatzat jotzen da mintegi integratzaileetan (UD-KD) zeharkako irakasgaia lantzeko modua. Hala, horrek beste LN batzuen prozesuei eta ikerketei jarraipena ematea eta horiekin etengabeko harremana mantentzea ahalbidetu zuela azpimarratzen da. Izan ere, zentratzen eta ikuspegiak zabaltzen lagundu zuen, proposamena sortuz eta finkatuz; herri hezkuntzako metodologiak txertatuz, beste ikuspegi batetik ikerketak garatzen lagundu zuen, baita UD eta KD arteko prozesu lotura ulertzen ere; eta organizitateak, txandaketak eta ikerketa-ekintza ikerketek heziketarako duten ahalmena handitu zuen.

Txandaketaren muga edo hobetu beharreko elementu bezala identifikatutako alderdiak

Edizio bietan, UDen eta KDen iraupenari dagokienez, aurkako iritziak aurkitzen ditugu. UDak labur eta luze egiten dira aldi berean eta "batzuetan lau egun jarraian izatea zaila izan dela" nabarmentzen da. Bestalde, KDak batzuetan luze egiten dira, batez ere udan, eta lan dinamika eta prozesuarekiko lotura mantentzea zaila egiten da. Beraz, UDen eta KDen iraupena berrikustea garrantzitsutzat jotzen da.

UDetan ikastaroaren dinamika oso bizia eta kolektiboa izaten da. Gainera, UDetan gauza gehiegi egin nahi izateko joera identifikatzen da, KPPan zein ikasleengan. Hori dela eta, UDen programazioek deskantsatzeko eta norberarentzako momentuak aurreikusi beharra azpimarratzen da eta norberak eta taldeak programazioak ezartzen dituen atsedenaldira doitu eta bete beharra ere. Lehenengo ediziotik bigarrenera alderdi hori hobetu zen, baina oraindik ere hobetu beharreko alderdi gisa identifikatzen da.

Halaber, UDak garatzeko, orain arte aipatu diren horiez gain, zailtasunak daude heziketa proposamenaren beharrak betetzen dituzten lekuak topatzeko (distantzia, ohe kopurua, lan egiteko eremu egokiak, bisitatzeko moduko esperientzia inguruan, elikadura proposamenarekin bat etortzea). Era berean, nolabaiteko zailtasuna dago beste esperientzia batzuk tartean sartzen dituzten logistika eta edukien programazio gaiak (bisitak, hitzaldiak, mahai-inguruak, etab.) epe luzean planifikatzeko ere.

Lehenengo edizioan esperientzia gutxi bisitatu ziren eta UDak eta KDak Gipuzkoan eta Bizkaian egin ziren, batez ere. Bigarren edizioak etapa bat gehiago zuen eta, hala, lurralde aniztasun handiagoa lortu zen bai UDetan eta bai KDetan ere. Beraz, muga hori gainditu zen.



Bernedoko aterpea (Araba), Besardakadaren lehenengo UDa. Iturria: Baserritik Mundura artxiboa.

5.3. Ikasleen (LNen eta Lantaldeen) organizitateari lotutako ikaspenak eta gakoak

Identifikatutako alde positiboak/arrakastak

Ikasleen antolakuntza (LNak eta lantaldeak) funtsezkoa da taldea egituratzeko eta, UDetan eta KDetan, taldea ikasketa subjektua izan dadin, modu horizontalago, arduratsuago eta autogestionarioago batean. Hala, pertsona guztiak heziketa prozesuaren protagonista eta arduradun sentitzea ahalbidetzen du eta, kolektiboa ondo ibiltzearen, fokua ardurak txandakatzeko eta banatzeko beharrez jartzen du. Hala, ikasketa orientatzearen eta politizatzearen, txandaketaren denbora bietan hurbileko bide-laguntza funtsezkoa dela nabarmentzen da.

Organizitatea ere funtsezkotzat jotzen da. Horrek, bada, antolakuntza funtzionamendu eredu bat bizitzeko aukera ematen du, partaideen jatorrizko antolatze moduak eta antolaketa kulturak berrikusteko erreferentzia ematen duena. Izan ere, ikastaroaren proposamenak modu eta kultura horiek sendotu eta aberastu nahi ditu.

“Ez nuen espero organizateari buruzko ikaspen hori. Ikasitakoak parte hartzen dudana beste kolektibo batzuk zalantzan jartzera eraman nau. Eremu horietan hutsune bat dagoela sentitzen hasi naiz. Eta hori landu behar dugu! Organizitatea guztiz beharrezkoa da borroka aurrera eraman nahi badugu, benetan eraldatzailea izatea nahi badugu” (BM-Besardakada edizioko partaidea).



Edizio bietako LNen lanaren bi momentu. Iturria: Baserritik Mundura artxiboa.



Edizio bietako LNen lanaren bi momentu. Iturria: Baserritik Mundura artxiboa.

Ikasleen LNen arabera lurralde antolaketa ikastaroaren funtsezko gakoa izan da, heziketa proposamenaren koherentzia eta integritasuna dezente hobetzen baitu. Hala, LNa ikastaroaren funtsezko heziketa-eremu kolektiboa da; ikerketa kolektiboen garapena sustatzen du, zeharkako alderdi politizatzaileak garatzen laguntzen du eta lurraldean eragiteko aukera ematen du, kurtsoaz haragoko loturak sortuz.

Ikasleak lau lantalde hauen arabera antolatzea ere egokitzen jo izan da: koordinazioa, erregistroa eta memoria, zaintzak eta ludiko kulturala. Hori funtsezkoa da talde lana eta beste LN batzuetako kideekiko harremana sustatzeko eta proposamena ibiltzeko beharrezkoak diren lan guzti horiek (eskulanak, lan intelektualak, emozionalak, etab.) bistartzeko eta aintzat hartzeko.

"Oso eraginkorra izan da botere harremanak orekatzeko, oso aberasgarria. Aldi berean dibertsifikatzen eta batzen du; gure gabeziatik eta trebetasunetatik ikasteko aukera bat" (BM-Besardakada edizioko partaideak).

Organizitatearen muga edo hobetu beharreko elementu bezala identifikatutako alderdiak

LN handienek eta geografikoki sakabanatuagoak dauden horiek zailtasun gehiago eta handiagoak izan zituzten erritmoak uztartzeko eta KDetan elkartzeko, elkarrekin lan egiteko, adostasunak lortzeko, gatazkak lantzeko, ikerketa proiektua zehazteko, etab.

Halaber, zalantzak sortu dira honen inguruan: lurralde irizpideak hizkuntza edo genero irizpideak baino lehentasun handiagoa izan behar du LNak sortzeko? Iritzi desberdinak daude horren inguruan. Batzuen ustez hizkuntza irizpideak ez du LNen eraketa erabaki behar; aitzitik, egoerak aurreikusi eta LN bakoitzaren hizkuntza osakeraren arabera landu behar dira. Beste batzuen ustez, aldiz, LNak kideen hizkuntza gaitasunen eta lan egingo duten tokian nagusi den hizkuntzaren arabera osatu behar dira.

LNen tamainari dagokionez, gehienek 4-6 kideko tamaina egokia dela uste dute. Izan ere, kasu batzuetan, tamaina handiegia edo txikiegia izateak antolatzeke edo lana aurrera eramateko zailtasunak sortzen ditu. Hala ere, tamaina hori lortzea ez da beti posible, taldeak partaideen egoeraren araberaosatzen baitira.

Halaber, taldeei bide-laguntza emateko tresnak eta saiok txertatzea garrantzitsua delako iritzia dago, LNen barne funtzionamenduari dagozkion arazoak landu ahal izateko (korapiloak identifikatzea eta horiek lantzeko tresnak ematea).

Beste alde batetik, lantaldeen aktibazioari dagokionez, lehenengo edizioan nolabait ahulezia egon zela identifikatu da. Izan ere, lehenengo UDan gehiegizko lan-karga egon zen eta lehentasuna LNak aktibatzeari eman zitzaion. Bigarren edizioan, ahultasun hori gainditu zen, ikasleen antolaketa bikoitza (LNak eta Lantaldeak) hobeto azaldu zen eta, hasieratik, kolektibo bien aktibazioari garrantzi bera eman zitzaion. UD bakoitzaren programazioetan taldeak aktibatzeke denbora bat txertatu zen hasieran, eta batzar orokorrean talde bakoitzean egindako lanari buruzko informazioa emateko eta ardurak txandakatzeko beste denbora bat amaieran. Talde bakoitzak bide-laguntza izan zuen, baina hori nahiko ahula izan zen eta hori indartu beharreko alderdi bat da, baita talde bakoitzarentzako hasierako orientazioak eta zereginak indartu ere.

5.4. Dimentsio mistiko eta ludiko-kulturalari lotutako ikaspenak eta gakoak

Identifikatutako alderdi positiboak/arrakastak

Dimentsio horiek oso ondo landu zirelako iritzia dago. Edizio bietan honako hauen bitartez landu ziren: taldea iratzartzeko dianak; erabilitako talde dinamika ludiko desberdinak: *egun on* denborak; gau kulturalak; landutako gaiekin esanahi eta sinbolismo handia duten tokiak bisitatzea; abestien, olerkien, marrazkien eta LNek eta KPPak egindako irudikapen mistikoen erabilera pedagogikoa.

"Batuetan Euskal Herrian faltan botatzen dut artea aldaketarako eragile gisa erabiltzea. Nire ustez aurrean dugun erronka handia da hori. Atzo, "errebeldia alaia" aipatu genuen; izan ere, borrokatzen ari gara baina, aldi berean, disfrutatzen eta sortzaileak izaten saiatu behar dugu" (BM-Piztu da Hazia! edizioeko partaideak).



Bigarren edizioko talde nortasuna irudikatzen duen marrazkia, taldeko kide batek egina.
Iturria: Baserritik Mundura artxiboa.

Dimentsio mistikoak eta ludiko kulturalak eragin handia duen arren, proposamenaren integritasuna da honako hau lortu duena: LNen eta talde osoaren nortasuna eta kohesioa sortzea eta lantzea; arlo politikoa eta emozionala, kulturala, korporala eta sinbolikoa lotzea; konfiantza, konpromisoa, hurbiltasuna, sormena, dibertsioa eta poztasuna sustatzea; euskal kultura baserritarrekiko loturak; borroka desberdinen historia, internazionalismoa, etab.

Egokitzen da gau kulturalen prestakuntza talde ludiko-kulturalaren ardura kolektibo bat izatea, mistikarekin eta jolasarekin, antzerkiarekin edo dantzarekin lotuz.




Egun on denbora, Piztu da Hazia! edizioaren azken topaketan, Beizaman. Iturria: Baserritik Mundura artxiboa.

"Musikak, dantzak, jolasak gure burua beste leku batean kokatzeko balio digu, zabaltzen gaitu, tentsioak baretzen ditu, gainontzeko LNeekin eta prozesuan dauden beste pertsona batzuekin harremanak izatea eta horiekin nahastea errazten du" (KPP saioa, 2018ko azarokoa).

Proposamenak hizkuntza eta ikasteko modu desberdinak uztartzea ere funtsezkotzat jotzen da: pentsatzea, sentitzea, harremanak izatea, egitea, sortzea, marraztea, jolastea. Hala, jakintza, hizkuntza, eta adierazteko eta komunikatzeko modu desberdinak aintzat hartzen dira, hitza edo testua lehenetsi beharrean.

Edizio bietan, hunkigarritzat hartu izan den eta gehien baloratu den elementuetako bat mistika izan da. Hainbatentzat oso berritzailea izan da, aurkikuntza garrantzitsua, esploratzen jarraitu beharreko tresna; beste batzuentzat oso beharrezkoa, eta beste eremu batzuetan faltan botatzen dena.

"Aurka-apurka busti egin gaitu, eta horrek adierazteko, aldarrikatzeko, sentitzeko eta kritikatzeko duen ahalmenez jabetu gara. Funtsezkoa izan da prozesu osoan eta kolektiboa eta nortasuna sortzen lagundu digu; niretzat komunikatzeko eta adierazteko modu berri bat da. Adierazteko sormena piztu dit; ospatzeko tresna bat, oinorde kulturala eta identitarioa transmititzeko, adierazteko modu berri bat, oso baliotsua den tresna politikoa" (BM-Besardakada edizioeko partaideak).



Bigarren edizio hasierako mistika Bernedon. Iturria: Baserritik Mundura artxiboa.

"Euskal Herrian, gure identitatean, gure kulturaren, gizarte erakuntzako eremu askotan ez ditugu kontu horiek asko lantzen, esate baterako, mistika. Guretzat hori ikastaroaren plus bat izan da; hain zuzen, elikadurari eta gure kulturari lotutako gai horiek beste ikuspegi batetik lantzea" (BM-Piztu da Hazia! edizioeko partaidea).

Dimentsio mistikoaren eta ludiko-kulturalaren muga edo hobetu beharreko elementu bezala identifikatutako alderdiak

Hala ere, mistikaren ahalmen pedagogikoa eta politikoa murriztu dezaketen zenbait muga identifikatu ditugu. Muga horiek, bada, mistika heziketa dimentsio bezala erabiltzen duten LVCrean eta MSTren ikastaroetan ere ematen dira; eta mistikaren eta antzeztearen arteko lotura nahasgarriari dagokio, eta zenbait kasutan horren mekanizazioari ere. KPParen arabera, bigarren edizioan hori gutxiago gertatu zen, baina hobetu beharreko alderdi bat da oraindik. Horrela, mistika, momentu jakinetan adierazteaz eta lantzeaz gain, eratzen ari den izaera kolektiboaren oihartzuna izango da.

Beste alde batetik, KPPak dimentsio horiek lantzeko gabeziak dituela identifikatzen da. Hala, pertsona jakin batzuen beharra sumatzen da eta horiei gehiegizko lan-karga ematen zaie; izan ere, pertsona horiek, beraien ibilbidea eta gaitasunengatik, taldearekin dimentsio horiek lantzeko eta politizatzekeo gai dira. Hortaz, dimentsio horren balioa eta eragina dela eta, beharrezkoa da materialak biltzeko eta alde zurretik proposamenak sortzeko denbora gehiago izatea, UDetan zein KDetan. Era berean, taldearekin eta KPParekin dimentsio horiek prestatzeko pertsona gehiago behar dira. Horrela, UDetan dimentsio horrek lan intentsiboa eskatzea saihestuko litzateke, izan ere, hori gertatzen denean, mistikak heziketarako duen ahalmenaren zati bat galtzen du:

"UDetan zein KDetan horiek lantzeko denbora gehiago behar da, UDetan hori lan intentsiboa ez izateko, horrela heziketarako duen ahalmenaren zati bat galtzen baitu" (KPP saioa, 2018ko azarokoa).

Horrez gain, emozioen, nahien, beldurren, jarduera artistiko, ludiko eta sormenezkoen zentzu politikoa lantzean sortzen diren erresistentziak guztion artean landu eta irakurketa pedagogikoak egin beharra identifikatzen da.

5.5. Eduki teorikoei, irakasgaiei, jarduera irekiei eta irakasle taldeari lotutako ikaspenak eta gakoak

Identifikatutako alde positiboak/arrakastak

Bigarren edizioan zehar, lehenengo edizioako hobetzeko proposamenak aplikatuz, ikastaroaren zenbait eduki indartu genituen:

- * Nekazaritzari lotutako edukiak indartu genituen, nekazaritzari buruzko irakasgaiei ordu gehiago emanaz, sektoreko kide gehiago hainbat modutan inplikatur (hitzaldiak/mintegi irekiak, esperientziei bisitak, parte hartze handiagoa bikote-pedagogikoetan).
- * Feminismo baserritarrari buruzko irakasgai bat gehitu zen, horren dinamizazioan *Etxaldeko Emakumeak* kolektibo feminista inplikatur.

Bigarren edizioan, basogintzaren eta arrantzaren kudeaketa ereduak eta horren antzeko hainbat gaik garrantzi handiagoa izan zuten; izan ere, LNEk berek egindako ikerketen bitartez hori sustatu zuten, proposamenen indartu beharreko edukiak seinalatuz. Ikastaroak nekazaritza sektorean gaurkotasan handia duten gaiei garrantzia ematea eta ikasleak berak heziketa prozesua eraikitzen duen subjektu pedagogikoa izatea oso positibotzat jo izan da.

Orokorrean, edizio bietako partaideek positibotzat jo izan dituzte irakasle taldea, eduki teorikoak, irakasgaien saioak eta emandako materialak. Irakasgaiak etapaka mailakatur, edukiak bloke tematikoen arabera antolatzea egokitzat jotzen da. Hala, edukiei dagokienez, partaideek ondo baloratu dute prestakuntza baina, nolabait, edizio bietan euskal kultura baserritarrari buruzko edukiak ahulak izan direla baloratu dute.

"Interesgarria iruditu zait edukiak bloke tematikoen arabera antolatzeko modu hori. Irakasgai guztiak dira egokiak lehen sektorearen arazoan ikuspegi global eta kokatu bat izateko, baita sektorea zapaltzen duten mekanismoei eta elikadura burujabetzaren inguruan martxan dauden alternatibei dagokienez ere" (BM-Piztu da Hazia! edizioako partaidea).

Irakasleak bikote pedagogikoetan antolatzea ere egokia delako iritzia dago. Bikote pedagogiko bakoitza oso desberdina bada ere, ikuspegi, estilo, ibilbide, genero eta hizkuntza osagarritasunak gai bakoitzaren lanketa aberasten du. Hala, antolatzeko modu horrek ikastaroaren proposamenak duen koherentzia handitzen du.

KPParen eta bikote pedagogikoen arabera, mintegi pedagogikoak positiboak izan dira, bai koordinazio eta elkarlaneko eremu bezala (etapa bereko KPPa eta bikote pedagogikoak), bai irakasleentzat heziketa eta ikerketa

Baserritik Mundura esperientziaren sistematizazioa: elikadura burujabetzarako prestakuntza eta ikerketa

metodologietan eta ikuspegietan trebatzeko eremu bat delako (herri hezkuntza, ikerketa-ekintza, ikastaroaren metodologia pedagogikoa, etab.).

UDetan eta KDetan ospatutako mintegi irekiak ere positibotzat jo izan dituzte. Horiek, ikastaroan nekazaritza gaien inguruko edukiak indartzea eta nekazaritza eta arrantza sektoreko esperientziek eta kideek parte hartzea sustatu dute. Horrez gain, esperientziei egindako bisitek bezala, mintegiek "ikastaroaren burbuilatik" irteteko eta sektoreko eragileekin eta lurraldearekin sozializatzeko/konektatzeko/partekatzeko aukera ematen dute. Zentzu horretan EHNE-Bizkaiaren ekarpena oso positiboki baloratzen da.



I. Udan Candido Besa upategiari bisita.



III. UDan Baztanen ospatutako esperientzien mahai-ingurua
Iturria: Baserritik Mundura artxiboa.

"Ni, ikastaroa bukatu bezain laster, lehen sektorean sartu nintzen. Orain, sektorekoa naizela, honelako prozesuak funtsezkoak eta ezinbestekoak direla ulertzen dut [...] jende asko kontziente izatea, antolatzea eta lehen sektorea burujabetzarako ezinbestekoa dela ulertzea lortu behar dugu. Eta horretarako honelako formatuak behar ditugu" (BM-Piztu da Hazia! edizioako partaidea).

Eduki teorikoen, irakasgaien, jarduera irekien eta irakasle taldearen muga edo hobetu beharreko elementu bezala identifikatutako alderdiak

Lehenengo edizioan, zenbait bikote pedagogikok proposamenarekiko inplikazio handia, kidetasuna eta elkarrekin lan egiteko erraztasuna izan zuten. Beste batzuekin ordea ez zen gauza bera gertatu eta elkarrekin lan egiteko zailtasunak ere izan zituzten. Horren ondorioz, bigarren ediziorako ikaspenak identifikatzeko eta hobetzeko zenbait proposamen inplementatu genituen (bikote batzuk aldatu, estilo desberdinak identifikatu, bikote pedagogikoei lan egiteko eta beren funtzionamendua zehazteko askatasun handiagoa eman zitzaizen) eta aldaketa horiek balorazio ona izan dute.

Mintegi pedagogikoei dagokienez, lehenengo edizioan hobetu beharreko alderdi hauek identifikatu ziren, besteak beste: a) parte hartzeko gogoak eta konpromisoa prozesu hasieran zehaztea; b) mintegiak bikoteentzat erabilgarriak izate aldera, horiek antolatzeko modua eta landuko dituzten gaiak elkarrekin zehaztea; eta c) etapa bereko bikote pedagogikoen arteko koordinazioa hobetzea. Hala ere, bigarren edizioan zenbait bikote pedagogikok mintegietan parte hartzeko eta, irakasgaiak harago, prozesuan inplikatzeko zailtasunak sumatu dira.

Ikastaroaren edukien ikasketari, jabetzeari eta sakontzeari dagokienez, nolabaiteko ahultasuna edo muga identifikatu da lehenengo edizioan. Horrelako ikastaroetan eduki teorikoak irakurtzeko eta horietan

sakontzeko ardura KDei dagokie (zenbait hilabeteko iraupena baitute). Hala, ikasketa prozesuaren zati bat autodidakta da, nolabait, eta ikastaroan emandako materialetan oinarritzen da. Egoera hori nabarmen hobetu zen bigarren edizioan; izan ere, KDen egutegiaren eta gida didaktikoen irakurketan eta eztabaidan emandako bide-laguntzaren bitartez, irakurgaiak zehaztu ziren eta horiek ikerketa lanetan islatzea sustatu zen. Hala ere, honelako proposamenetan indartu eta kontuan hartu beharreko kontu bat da hori.

5.6. Ikuspegi feministaren zeharkakotasunari lotutako ikaspenak eta gakoak

Identifikatutako alde positiboak/arrakastak

Edizio bietan, positibotzat jo izan da proposamenean ikuspegi feminista zeharka txertatzea. Horretarako, honako elementu metodologiko eta antolatzailea hauek erabili ditugu:

- * Bikote pedagogikoetan generoko oreka aurkitzea, eta ikastaroko irakasle asko feministak izatea eta mugimendu feministan parte hartzea.
- * Mugimendu feministan parte hartzea partaideen aukeraketarako irizpide bat izatea.
- * Bikote pedagogikoei beren saioetan eta gida didaktikoetan ikuspegi feminista txertatzeko eskatzea (edukietan zein gaian sakontze aldera aukeratutako erreferentzietan eta materialetan).
- * Feminismoari eta baserritarrei buruzko ikerketa ardatz bat sartzea.
- * LNan zaintza lana sartzea. Horren ondorioz, etapa bakoitzean zaintza talde bat egon da. Horrela eztabaida sustatu da eta ikuspegi feminista LNetan eta talde osoan presentzia izatea bultzatu da. Hori elkarlaneko hainbat eremutan ere egin zen generoko behaketen bitartez.

Halaber, lehenengo edizioan ikuspegi feministaren presentzia egon bazen ere, hori lausoa izan zela eta ez zela behar bezala landu baloratu zen. Bigarren edizioan, hori modu esplizituago batean lantzeko bi proposamen hauek aplikatu ziren: alde batetik, feminismo baserritarrei buruzko irakasgaia eta mintegi ireki bat txertatu ziren, *Etxaldeko Emakumeak* horren dinamizazioan inplikatur; eta bestetik, bikote pedagogikoei ikuspegi feminista irakasgaietan eta gida didaktikoetan hobeto txertatzeko eskatu zitzaizkien. Bigarren edizioko balorazioen arabera, ikuspegi eta eztabaida feministak presentzia sendoa eta jarraitua izan zuen irakasgai gehienetan, hainbat mistikatan, LNen barne dinamikan eta egindako zenbait ikerketatan. Gainera, oso positibotzat jotzen da LN batek (Sorginatxurrak) bere ikerketa emakume baserritarren jakintzak berreskuratzeari buruz egitea erabaki izana, horrek eztabaida horren eta ikuspegi feministaren presentzia indartu baitzuen ikastaro osoan zehar.

Ikuspegi feministaren zeharkakotasunaren muga edo hobetu beharreko elementu bezala identifikatutako alderdiak

Edizio bietan honako hau identifikatzen da: ikuspegi feministaren ahultasuna eta falta, zenbait irakasgaitan eta gida didaktikotan; zaintza taldearen bitartez ikuspegi feminista txertatzeko moduaren ahultasuna; zenbait eremutan ez zen generoko behaketa egin, ezta batzar orokorrean informatu ere. Era berean, indarkeriarik gabeko komunikazioa landu beharra ere identifikatzen da.

Bestalde, erronkatzat hartzen da ikuspegi interseksional orekatua ez galtzea, zapalkuntza guztiak eta horiek erreproduzioa aintzat hartze aldera.

Hala, KPPan dinamika heteropatriaralaren erreproduzioari, botere harremani eta indarkeriarik gabeko komunikazioari buruzko barne lana egitea interesgarria izango litzatekeelako iritzia dago.

5.7. Hizkuntza aniztasunari eta euskararen erabilerari lotutako ikaspenak eta gakoak

Identifikatutako alde positiboak/arrakastak

Hizkuntza bien elkarbizitza eta ikastaroaren eremu guztietan euskararen presentzia duina eta esanguratsua izateko ahaleginak oso modu positiboan baloratu dira edizio bietan. Euskal Herrian egindako beste heziketa prozesu elebidun batzuekin alderatuta (unibertsitatekoak eta unibertsitatez kanpokoak), hori ikastaroaren ezaugarri bereizletzat eta berrizaitzat hartu izan da. Muga eta hobetu beharreko elementu asko daudela onartzen badugu ere, hori egin ahal izateko funtsezkoa izan da honako hau:

- * Taldearen, LNen, irakasleen eta KPParen jarrera proaktiboa; inertiak antzemateko eta euskara lanerako zein elkarbizitzarako hizkuntza bezala presente egon dadin.
- * Nolabaiteko malgutasuna eremu eta momentu informaletan.
- * Ahalegin eta lan handia egin da eta baliabide asko inbertitu dira ikastaroko material guztiak hizkuntza bietan izatea bermatzeko.
- * Aldibereko itzulpena egiteko ekipamendua eta *Itzulipurdika* kolektiboaren funtsezko laguntza izatea. Kolektibo hori musu-truk aritu zen jarduera gehienetan, euskara-gaztelania aldibereko itzulpen lanean.
- * Euskaldunen lana eta konpromisoa; izan ere, *Itzulipurdikaren* laguntza ez zegoenean eurek egiten zuten lan hori.

Bigarren edizioko eztabaida nagusietako bat hizkuntza auziaren ingurukoa izan zen. Oso modu positiboan baloratzen da Besarkada taldeak berak proposamenaren hizkuntza lanketak zituen mugen kritika konstruktiboa egin izana. Izan ere, kritika hori KPPak eta bide-laguntza taldeak dokumentu bat egiteko akuilua izan zen. Horrek talde osoarekin eztabaida sakontzen laguntzeko eta hizkuntza auziaren inguruko jarrera marko bat sortzeko helburua zuen, taldearen ekarpenak bilduko zituen. Dokumentuari honako izen hau jarri zioten "*Hizkuntza aniztasuna Baserritik Mundura ikastaroan: Hizkuntzen adierazpen askatzailea eta guztion arteko*

*komunikazioa*⁴⁰. Dokumentua kolektiboki egiteak eztabaida modu pedagogikoan lantzen lagundu zuen, hizkuntza ikuspegi zein ikuspegi politiko batetik, eta KPPari, bide-laguntza taldeari eta talde osoari ikaspen ugari eskaini zion.



Itzulipurdika kolektiboko Gixane. Iturria: Baserritik Mundura artxiboa.

Hizkuntza aniztasunaren eta euskararen erabileraren muga edo hobetu beharreko elementu bezala identifikatutako alderdiak

Edizio bietan, itzultzeko gailuek arazo teknikoak izan zituzten. Gainera, inertzien ondorioz, zenbaitetan ez da behar bezala zaindu euskararen presentzia. Beste alde batetik, *Itzulipurdika* kolektiboak ezin zuenean, KPPak itzultzeko lana hartzen zuen bere gain; baina hori gehiegizko lana zen KPParentzat eta bide-laguntza lana kaltetzen zuen.

Gida didaktikoak euskaraz idazteko eta gaztelaniaratzeko aukerak, nolabait, hizkuntza bietan pentsatutako eta idatzitako edukiak izatea bermatuko zukeen. Ikastaroan erabilitako dokumentu askoren eta gida didaktikoen euskaratze-lanak profesionalak egin dituzten arren, horiek ez dira behar bezain onak izan. Hizkuntza-jarrerari buruzko dokumentuak, bada, hobetzeko proposamen hori eta beste proposamen batzuk jasotzen ditu.

Euskara KPParen eta bide-laguntza taldearen lanerako eta elkarbizitzarako hizkuntza izan dadin bermatzea muga bat izan da, gaingitu ez den erronka bat, alegia. Nolabaiteko moteltasuna, erresistentziak eta zailtasunak identifikatu dira taldeak egindako hausnarketa eta eztabaida txertatzeko, hizkuntza jarrera dokumentua egiteko, eta testu hori taldearekin lantzeko marko egokia sortzeko. Era berean, hizkuntzari buruzko dokumentu horrek planeatzen duen hori ez dela txertatu onartzen dugu, ez KPPean, ez bide-laguntza taldean. Zentzu horretan, dokumentu markoa aipatu nahi dugu. Horrek, hizkuntza arloa erronka politiko eta emantzipatzaile bezala lantze aldera, banakako eta guztion lana interpelatzen ditu.

⁴⁰ Hemen eskuragarri (hizkuntza bietan): <<https://www.dropbox.com/s/alsb8ft5ay4q20w/Posicionamiento%20linguistico%20Baserritik%20Mundura%20Eusk-cast.pdf?dl=0>>.

5.8. Prozesuaren bide-laguntza politiko pedagogikoari lotutako ikaspenak eta gakoak

Identifikatutako alde positiboak/arrakastak

Edizio bietan, ikasleek gogobetetasun maila altua adierazi dute UDetako eta KDetako bide-laguntza politiko pedagogikoaren inguruan. Beraz, proposamena garatzeko, hori ezinbestekotzat jotzen dugu.

"Norabidea markatu gabe, bidea argitzeko gaitasun handia izan du. Harremana horizontala izan da; nik oso gutxi ezagutzen nuen hori baina funtsezkoa iruditu zait, funtsezkoa eta ederra. Mila esker [...] Hurbiltasunez, sentikortasunez eta konpromisoaren bidez, baina zuzendu gabe, lagun egiten, animatzen, argitzen duen talde horregatik izango ez balitz prozesu hau ez litzateke posible izango" (BM-Besardakada edizioko partaideak).

Halaber, balorazio gehien arabera, bigarren edizioan *LNei lagun egiteko talde bat* osatzea oso positiboa izan da. Izan ere, horrek LNen premiak identifikatzen laguntzen du eta, prozesu klabearen, horien jarraipena egiten du. Hobetu beharreko elementuak identifikatzen diren arren, honako hiru positiboki baloratzen da: bide-laguntza bikoteka egin izana eta bietako bat KPPko kide izatea; talde hori koordinatzeko arduradun bat egon izana; horretan lehenengo edizioko partaideak sartu izana; eta elkarrekin Baserritik Mundura ikastaroko bide-laguntzari buruzko dokumentu marko bat sortu izana, taldea orientatzeko balio izan duena. Hala ere, dokumentu hori gehiago lantzea eta zehaztea falta izan dela aipatu da.



LNei lagun egiteko taldearen batzar bat. Iturria: Baserritik Mundura artxiboa.

"Gure itsas-argia izan dira: korapilo askatzaileak, lasaigarriak, faltan genituen gakoak eman ditzutenak [...] orientabidea ematen du, kokatzen du, politizatzen du; LNaren barne dinamikan arreta handiagoa jartzen lagundu digu" (participantes BM-Besardakada).

Balorazioetan, KPPak edizio bietan proposamena antolatzeke eta horri koherentzia emateko izan duen gaitasuna azpimarratu da. Horretarako, honako hau beharrezkoa izan da: elkarlaneko dinamika jarraitua sortzea eta mantentzea; aldaketetara moldatzeko malgutasuna eta gaitasuna; gogo handia, inplikazio emozionala, konpromiso politikoa eta prozesuarekin eta proposamenarekin bat egitea; eta taldeko kideen profilen, ikuspegiaren eta komunikazio estiloaren osagarritasuna.

"Ni oso harrিতuta nago gorputz eta arima aritzeko duzuen gaitasun horrekin [...] Zuetariko bakoitza bertan izan da, KPPan eta zuen bizitzaren zati garrantzitsu bat eman duzue bertan; ez da lana bakarrik [...] Gainera, gauzak egitean, ez zarete perfekzioaren bila ari, baina bikaintasunez lan egiten duzue eta hori oso hunkigarria da" (BM Piztu da Hazia! edizioeko partaidea).

KPPak, edizio bietan zehar, partaideek hobetzeko asmoz egindako proposamenak txertatzea lortu zuen. Gainera, elkarrekin prozesuan ustekabearen sortutako auzien inguruan hausnartzeko hainbat momentu sustatu zituzten (LNetan zein talde osoan), ikastaroak sortutako ikasketa prozesua politizatzeke helburuz. Zentzu horretan, bada, positibotzat jotzen da bigarren edizioan hizkuntza auziaren eta ikastaroaren etetearen inguruan taldearekin egindako eztabaida lantzeke modua.

Prozesuaren bide-laguntzaren muga edo hobetu beharreke elementu bezala identifikatutako alderdiak

Edizio bietan, KPParen zenbait berezitasunek zailtasunak eta ahulguneak sortu zituzten taldearen funtzionamenduan eta prozesuaren bide-laguntzan. Horien artean, honako hauek azpimarratu nahi ditugu:

- * Proposamena esperimendatzeko eta Euskal Herriko testuingurura moldatzeko prozesu horretan, zaila izan da KPParen funtzionamendua, eginkizunak eta lan-karga zehaztea eta dimentsionatzea. Izan ere, KPPak proposamen metodologikoak duen garrantzia ulertzea bermatu behar genuen. Aldi berean, horrek lan hori egingo zuen taldearen aukeretara egokitzeko malgutasuna behar zuen.
- * Profileri eta inplikazio mailei dagokienez, lan talde berria eta anitza izan da eta bere egitura eta osaera ez da egonkorra izan edizio bietan.
- * Proposamena bultzatu duten nekazari erakundeek zailtasunak izan dituzte KPPan modu jarraituan parte hartzeke, horretarako kontratatutako pertsonaz harago.
- * KPPko bi kidek bakarrik izan dute ordaina, hori partziala izan bada ere. Kide gehienek konpromiso militantez egiten dute beraien lana.
- * Kide gehienek ez zuten ikastaroaren antolaketa metodologia eta metodologia pedagogikoa ezagutzen eta, premiazkoak ziren kontu horiei lehentasuna eman zitzaienez, ez zen denbora eman alde zurretik edo prozesuan bertan behar bezalako prestakuntza egiteke. Funtsean, beraz, KPPak edizio bietan zehar eginez ikasi du eta horrek muga asko sortu ditu.

Bigarren edizioan hobetu beharreke elementu hauek identifikatu dira: KPParen barne funtzionamendua, erabakiak hartzeke mekanismoak, autokritika egiteke gaitasuna, entzutea, zaintza, elkar-laguntza, etab. Gainera, bideratzailearen rola txertatu beharra identifikatzen da, korapiloak eta tentsioak identifikatzen direnean horiek landu ahal izateke. Era berean, KPPean ere lantaldeen rolak banatzea beharrezkotzat jotzen da, batez ere, zaintzari dagokion hori.

Bigarren edizioan LNen bide-laguntzarako taldeari dagokionez, LNez bigarren edizioan izandako bide-laguntza oso positibotzat jo bazuten ere, taldearen beraren ustez, bide-laguntzak minimoak betetzera besterik ez zen heldu. Zentzu horretan, PIEari, taldeak errazteari eta herri hezkuntzatik lagun egiteari buruzko barne trebakuntzaren bitartez, indartze eta kohesio handiagoa beharrezkoa litzatekeela identifikatzen da, baita bide-laguntza profil/formatu desberdinak zehaztea ere. Halaber, seinalatzen denez, taldean elkarlan dinamika bat ezartzeko saiakerak izan ziren arren, hori ez zen lortu; ez zen ikerketen jarraipena nekazaritza ikuspegi batetik bermatu; KPParekiko koordinazio eta komunikazioa falta egon zen eta horrek, bada, KPPko kideak ere ziren pertsona horientzat batzar kopurua handitzea ekarri zuen; eta, azkenik, Baserritik Mundura esperientzian boluntarioak ziren pertsonentzat erantzukizun eta inplikazio handia ekarri zuen.

Hasieratik identifikatutako erronka bat prozesuaren epe luzeko iraunkortasunari dagokio, iraunkortasuna zentzu zabalean ulertuz, hau da, maila ekonomikoa eta maila politikoa, pedagogikoa eta emozionala ere bai. Horretarako, horren oinarrian dauden elkarlaneko logikek eskatzen duten konpromisoaz eta gogoaz gain, heziketa ereduaren behar materialetara eta inmaterialak egokitutako iraunkortasun estrategiak zehaztea beharrezkoa da.

Bigarren edizioan zehar ekimenaren jarraipenaren inguruan izandako eztabaidak hainbat korapilo azalera zituen. Hala, erakunde bultzatzaileen artean eta KPParen baitan ere maila politiko eta pedagogikoan proposamena ulertzeko modu desberdinak zeudela agerian geratu zen. Proposamenari buruzko iritzi politiko desberdin horiek kontrako norabideak seinalatzen zituzten eta, ondorioz, erakunde bultzatzaileek ekimenarekin ez jarraitzea erabaki zuten.

Horregatik guztiagatik, Baserritik Mundura esperientziatik honako ikaspen hau ateratzen dugu: ikuspegi, lehenetsun, hizkuntza eta erritmo oso desberdinak uztartzea eskatzen duten lankidetzaren horietan hainbat zailtasun, tentsio eta muga sortzen dira. Beraz, beharrezkoa da horiek identifikatzeko eta behar bezala eta modu konstruktiboan kudeatzeko denbora ematea eta tresnak eta formulak erabiltzea. Esperientzia honek funtsezko ikaspenak eskaintzen ditu zentzu horretan.

Amaitzeko...

Momentu asko bizi izan ditugu eta ikaspen pertsonal eta kolektibo asko atera ditugu; posizioaren eta prozesuarekiko loturaren arabera oso desberdinak izan direnak. Prozesuak Euskal Herrian Elikadura Burujabetzaren aldeko nekazaritza eta elikadura sistema bidezko, osasuntsu eta iraunkor batekin eremu desberdinetatik konprometitutako pertsonak trebatzeko, lotzeko, antolatzeko, ikertzeko, ilusioa sortzeko eta politizatzeke ahalmen handia erakutsi du. Halaber, zailtasun eta muga asko ere erakutsi ditu. Zailtasun eta muga horiek baliagarriak dira, esperientzia honen jarraibidea oztopatu duten korapiloak hobeto ulertzen laguntzen baitigute, hurrengo esperientzietan kontuan hartu eta beste modu batera egin beharreko hori argituz.

Hasieran aipatu dugun bezala, argitalpen hau lehenengo analisi bat da, sistematizazio prozesua koordinatu duen pertsonak eskura duen informazioarekin egindakoa. Azterketa hau gaur egungo KPPko hainbat kiderekin kontrastatu da. Nolanahi ere, esperientzia hori sistematizatzeko prozesua, bere mugak eta arrakastak gorabehera, hainbat ahalegin pertsonal eta kolektibori esker burutu da. Beraz, eskerrik asko horiei guztiei! Orain arte identifikatutako ikaspen nagusiak zabaltzeko eta partekatzeko eta etorkizunean azterketa sakonagoak egiteko balio izatea espero dugu.

Baserritik Mundura!

Piztu da Hazia!

Besardakada!

Bibliografía

- BATISTA, A. F. (2014). Conciencia y territorialización contrahegemónica un análisis de las políticas de formación de La Vía Campesina-América del Sur. São Paulo: Cultura Académica. Hemen: <<https://repositorio.unesp.br/bitstream/handle/11449/126214/ISBN9788579836084.pdf?sequence=1&isAllowed=y>>.
- CASADO, B. (2018) Procesos de formación campesinos y disputa territorial para construir soberanía alimentaria. Análisis de experiencias impulsadas por organizaciones de La Vía Campesina en Brasil y País Vasco. [Doktore-Tesia] Hemen: <http://www.hegoa.ehu.es/articles/text/procesos_de_formacion_campesinos_y_disputa_territorial_para_construir_soberania_alimentaria>.
- JARA, O. (2014). La sistematización de experiencias, práctica y teoría para otros mundos posibles. Lima: PDTG, CEAAL eta Centro de Estudios y publicaciones Alforja.
- RIBEIRO, M. (2008). Pedagogía de Alternancia en la educación rural del campo: proyectos en disputa. Revista Educación e Investigación. 34. bol, 1. zkia. São Paulo. 27-45. orr.
- ROSSET, P. M (2015). Epistemes rurales y la formación agroecológica en La Vía Campesina. Revista Ciencia & Tecnología social. 2. bol., 1. zkia. 8-16. orr. Hemen: <http://www.landaction.org/IMG/pdf/rosset-epistemes_rurales.pdf>.
- MARTÍNEZ, Z; CASADO B; STRUNZAK, J. (2017/18) Guía didáctica asignatura transversal curso Baserritik Mundura.

Informazio gehiagorako.

- BASERRITIK MUNDURA (2016) [bideoa] Hemen: <<https://www.youtube.com/watch?v=0YRhD04oYKI>>.
- CALDART, R. S. (2004). Pedagogía del Movimiento Sin Tierra. São Paulo: Expresión Popular.
- ENFF (2012) [MST] ENFF una escuela en construcción [bideoa]. Hemen: <<https://www.youtube.com/watch?v=mUbdQYhu8r4&t=801s>>.
- ENFF (2016) [MST] ENFF en la batalla de ideas [bideoa]. Hemen: <<https://www.youtube.com/watch?v=ycotsNxotgg>>.
- INTXAUSPE, A. & GARCÍA, A (2017). Escuela de Acción Campesina: un apoyo a nuestra lucha, in Revista Pueblos 72. zkia. 2017ko lehenengo hiruhilekoa. Luchas campesinas para transformar el mundo. 24-26. Hemen: <<http://www.revistapueblos.org/blog/2017/03/02/escuela-de-accion-campesina-un-apoyo-a-nuestra-lucha/>>.
- LVC (2015): Agroecología campesina por la soberanía alimentaria y la madre tierra. Experiencias de LVC. Cuaderno de Formación nº 7. 2015ko apirila. Hemen: <<https://viacampesina.org/es/wp-content/uploads/sites/3/2015/11/CUADERNO%207%20LVC%20ESPANOL.compressed.pdf>>.
- MSTren hezkuntza lanari buruzko hainbat argitalpen, *Biblioteca digital de la cuestión agraria brasileña* liburutegi digitalean. Hemen: <<http://www.reformaagrariaemdados.org.br/biblioteca/cadernos>>.
- STRONZAKE, J. (2013). Movimientos sociales, formación política y agroecológica. Revista América Latina en Movimiento. 487. zkia., uztaila. Edizio Digitala. Hemen: <<https://www.alainet.org/sites/default/files/alai487w.pdf>>.
- EHNE-Bizkaia <<http://www.ehnebizkaia.eus/formacion/>>.
- Hegoa <<http://www.hegoa.ehu.es/>>.
- LVC <<https://viacampesina.org/es/tag/formacion/>>.

